

ARRASATE


PRESS

MARAÑON GESALAGA EDURNE
LORAMENDI KALEA, 06-10.C
ARRASATE

2


Arrasate 1989ko Urriak 27, 38. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean



**Juan Martin
Elexpuru**

*"Txakur zaunkak
atean"*



Imanol

**Amaia antzokian
larunbatean**

HAUTATU ETA IRABAZI

29an botoa ematera joango zara.
Hautatzera eta irabaztera

BAKEA

LANA

AUTOGOBERNUA

Eman botoa gurekin

EMAN BOTOA EUSKO ALKARTASUNARI



**Pedro M.
Ruiz de Azua
Alkate-ordea**

Pedro M. Ruiz de Azua

2

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetzak:

Arrasateko Eskualde-Ospitalea	795300
Igualatorioa	790500
Santa Agedako Ospitalea	
(gizonak)	793900
(emakumeak)	794411
Buru osasunerako zentrua	799011

Gurutze gorria:

Bergara	765576
---------------	--------

DYA

Antzuola	766291
----------------	--------

Anbulatorioak

Arrasate	791357
.....	799722
Oñati	780852
Eskoriatza	798896
Aretxabaleta	797458
Aramaio	(945) 455116

Anbulantziak:

Gipuzkoako ambulanziazak	458744
--------------------------------	--------

Udaltzaingoa:

Oñati	780411
Bergara	761469
Arrasate	791439
Aretxabaleta	791052
Eskoriatza	790322

Ertzantza:

Arrasate	797199
----------------	--------

Suhiltzaileak:

Udal taldea	790900
Udal taldeko suhiltzaile	
burua	792072
Zubillagako Eskualde-Parkea	782800

Matxurak:

Urak (udal zerbitzua)	790900
Elektrizitatea (Iberduero)	790581
Gasa	900 400 523
.....	797844
.....	797678

Garraioak:

Taxiak	791222
P.E.S.A.	791419

Hirugarren adinarentzako zentruak:

Iturbide Egoitza	797211
Abaroa jubilatuen egoitza	798157

Kontsumitzailearentzako informazioa:

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarte	798777
--	--------

27 OSTIRALA

- Zinea: Alai: "Un lugar llamado milagro", 7etan eta 9,30etan.
- Novedades: "Road House", 10,30etan.
- Kiroldegian: Euskal Rock jaialdia. 10,30etan. *Xementerio, Suita gar* eta *SS-77* taldeekin.
- Goardiako farmazia: L. Amezua, Santa Marinaran.

28 LARUNBATA

- Zinea: Alai: "Encerrado", 5etan, 7,30etan eta 10etan.
- Novedades: "Sin pistas", 5etan, 7,30etan eta 10,30etan.
- Amaia antzokian: Imanolen kantaldia, gaueko 10,30etan.
- Goardiako farmazia: A. Ruiz, Magdalenan.

29 IGANDEA

- Zinea: Alai: "Encerrado", 5etan, 7,30etan eta 10etan.
- Novedades: "Road House", 5etan, 7,30etan eta 10,15etan.
- Futbola: Atxabalpen, lauretan, Mondra- Arenas.
- Goardiako farmazia: A. Morales, San Andresen.

30 ASTELEHENA

- Zinea: Alai: "Encerrado", 7etan eta 9,30etan.
- Novedades: "Road House", 7,30etan.
- Naturari buruzko zine zikloa, Amaia antzokian, 8etan.
- Goardiako farmazia: A. Azkoaga, Ferrerías.

31 ASTEARTEA

- Zinea: Alai: "Encerrado", 7etan eta 9,30etan.
- Naturari buruzko zine zikloa, Amaia antzokian, 8etan.
- Goardiako farmazia: S. Español, Iturriotz.

1 ASTEAZKENA

- Naturari buruzko zine zikloa, Amaia antzokian, 8etan.

2 OSTEGUNA

- Zinea: Novedades: "Sin pistas", 7,30tan.
- Mahaingurua: "Soldaduzkaren aurrean zer egin?", Monterroneko kultur-etxeko hitzaldi -aretoan, arratsaldeko 7etan. Gonbidatuak, Euskadiko Ezkerrako gazteak, Kakitzat talde antimilitarista, Egi eta Jarrai.

IKASTAROAK

Orientazio Ikastaroa: Besaide Mendizale Elkarteak antolatuta. Azaroaren 2an, osteguna, arratsaldeko 7etan bilera egingo da Besaideren egoitzan, egitasmoa biribiltzeko. Ikastaroa azaroaren 4 eta 5ean, Leizagarteko aterpean.

Yoga ikastaroa: Bergarako UNEDen. Janari egokiak, amasketa egokiak, oreka fisikoaren ariketak, norbere buruaren lasaipena, pentsamoldearen kontrola etab. Ikastaroaren iraupena bi hilabete. Klaseak astearte eta ostegun arratsaldetan, 7etatik 8,30etara. Izena emateko epea urriak 30a arte. 761342 eta 761343 tfono.etan.

BATZARRAK

AEDko Batzar Orokorra: Urriaren 31ean, Monterronen, arratsaldeko 7etan. Aztertuko diren gaiak: 88-89 balorazioa, diru-kontuen azalpena, 89-90 kurtsorako ildo nagusiak, Estatutuen berriztapena...Eta ondoren afari ederra Musakolako Hostalean (1.500 pta; langabetu eta ikasleek 800. Izena emateko 795446 tfnoa.).

ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)
Arrasate Pasealekua 3 Bis, etxebehea.
20500 ARRASATE. Tfnoa: 79 71 64

Laguntzailea: Arrasateko Udala

Zuzendaria: Joxe Aranzabal

Erredakzioa: Jon Andueza
Bego Zubia

Publizitatea: Ruth Otaduy

Maketazioa: Goio Arana

Erredakzio-kontseilua: Jose Felix
Diaz de Tuesta, Harry Zaraia, Iñaki Mendiguren

Kolaboratzaileak: Josemari Velez de Mendizabal, Mikel Irizar, Karmele Zuazubiskar, Patxi Montero, Juan Martin Elexpuru, Mikel Arregi, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Gerardo Markuleta, Estepan Plazaola, Jesus Mari Garai, Juanito Leibar, Jerardo Elortza, Mila Galañena, Blanka Jauregi, Klarion Taldea, Joseba Vallés, Karmelo Uribarren, Iñaki Aranburu, Hankamotz.

Inprimategia: Gertu Koop. E.

Banaketa arduraduna:

J. L. Arejolaleiba

Harpidetzak: Arrasate pasealekua 3, bis, behe. 79 71 64

Copyright: ARRASATE PRESS

Tirada: 4.500 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.



Derrigorrezko politikagintza, posible ote?

Hauteskunde berriak atarian ditugularik hortxe dabilzkigu alderdi politikoak euren agindu eta bikaintasunak eskaintzen. Saltsa maltsa izugarriak harrapatu gaitu, oinezkoengan txunditzeko ahalmena unez une agortzen ari delarik. Urte batzuk barru, daramagun martxa honetan, ez gaitu ezerk harrituko.

Garatu nahi nukeen teoria bat badaukat eta argitara eman aurretik irakurlegoaren eritzia jasotzea gustatuko litzaidake. Bateon batek alderdi politikoei azaldu beharko niekeela esan dit, baina ez naiz ausartzen. Egia aitortzera, ezer gutxi fidatzen naiz zenbait alderdirekin, usterik gutxien denean horien lakio beltzean eror baitzaitezke... ordurarte hazitako ilusioa zeharo ezerezatua geratuz. Nire teoriaren gaineko zehazkizunak argituko ditut, zuzen ala oker ote nagoen epaitzea irakurlearen esku uzten dudalarik.

Botoemale askorengan nazka sortzen du, prebrikazioa, influentzien trafikoa, telefono pintxaketa, transfugismoa, hautesleekiko mesprexua... eta abar luze bateko erreallitatearen egiaztapenak. Botere lilurak sekulako erreakzio kontrolgaitza eragiten omen du gizakiengan, hori dela eta gure garapen biologikoa non eta nola amai daitekeen igertzea guztiz ezina zaigularik. Gizadiak

duen arriskurik nabarienetako bat, ahalezko agintza eta egiazko eskaintzaren arteko hutsunean aurkitzen da, eta diferentzia horrek hurkoekiko harremanak zailtzen ditu.

Boterearen erakarpenak, dirudinez, buru-osasunaren aurka atentatzen du. Beraz, eta gizakiaz maite-mindurik nagoenez gero, bere osasunaren aldeko ahaleginetan eraiki dut nire teoria. Zergatik ez proposatu derrigorrezko politikagintza? Nola? Formula zehatza oraindik lortzeko dudan arren, gutxi gorabehera duela zenbait urterarte auzo eta herrixka urrutietan egin ohi zenaren antzera eratzea aholkatuko nuke. Maiztasun konstante batez, etxez etxe aldatzen zen agintari izatearen **beharra**. Eta horretaz, atzo urliak kritikaturiko gestioa gaur urliak berak hobetu ahal izango luke (beharko luke), sandiaren eskutik agintaritzak makila eskuratzeaz batera.

Herri mailan, lurraldeka... antolatuko lirateke zozketak, eta bonbo erraldoietatik ateratako zenbakien jabeek herrigintzaren ardura hartuko lukete... urtebetez edo. Euren epea amaitzean **libre** geratuko lirateke betiko. Aberriaren Aita eduki beharrean Aberriaren Anaia-Arrebak izango ginatke.

Josemari Velez de Mendizabal

KLINIKA DENTALA

DOANEKO AURREKONTUA

* Odontologia orokorra

* Protesi finkoa

* Protesi mugikorra


* Haur eta helduentzako ortodontzia

Iturriotz kalea, 7 bis-behea. Tfnoa: 79 73 88 ARRASATE

Zubia eta

OSO GAUZA
BEREZIAK

Zerkaosteta 8



gili gili

Iturriotz,9 Tfnoa:799457

GIROA AROTZAK

Iturrioz 14, ARRASATE

HIRE

Liburu eta oparidenda
Iturriotz, 4 - Tfnoa 79 14 84

RAFAEL LORENZO

MEDIKU ODONTOLOGOA

Zarugalde 3, 1. B.
Tfnoa: 79 35 80
ARRASATE

ZEUEKIN GAUDE

**K
L
I
N
I
K
A

D
E
N
T
A
L
A**

Kaixo neska-mutilak!!

Gasteizko Gaztetxeko gazte asanblada gara. Zuetako askok ondoren kontatuko dizuegunaren berri izango duzuen bezala, okupatu eta altematiboa den eta guk geuk finantziatutako lokal batean aurkitzen gara.

Beste guztioi bidaltzen dizuegun txostenaren bidez, gu zer garen eta gure asmoen berri izan dezakezue.

Orain arte material eza, leku egokiaren falta dela eta liburutegi altematiboaren ideia, orain dela 5 hilabete jaiotzen bazen ere, gaur egun oraindik ez dugu erabat gauzatu.

Aipatutako liburutegiak honako alorrak hartzen ditu:

Fanzinak, Panfletoak, Anarkismoa eta Mogimendu askatzailea, Pegatinak, Sozialismo Iraultzailea, Euskera, Feminismoa, Txartelak, Ekologia eta Anti-nuklear Mugimendua, Internazionalismoa, Musika, Liburuak, Egunkariak, Txapak, Olerkia, eleberria eta beste zenbait sail.

Zuek bidaliko diguzuen materialaren bidez Euskadin eratuko den liburutegi altematibo bakarretako bat osatzera pasa dadin eta zalantzan jartzen dugu beste inon aurkituko oten den baldintza hauek beteko dituen liburutegirik. Beraz, helburu eta asmo hauekin zuengana jotzea erabaki dugu laguntza eske, nahiz eta bat zuentzat lehenengo aldi izango den, beste batzuk ongi ezagutzen gaituzue.

Bidaliko duzuen gutxi izanda ere, honek ondokoarekin liburutegi oso bat osatzen lagunduko du. Dagoeneko 50 kolektibok beraien materiala bidali digute eta honez gain zenbait argitalpenek harpidedun bihurtu gaituzte.

Beraz, lehen aipatutako zeozer baduzu, lagun ezazu gure liburutegi altematiboa kontsulta leku, solasleku eta heziketa eta erresistentzi leku bihurtu dadin.

Mila esker, ongi informatuak izango zaituztegu, gazte asanbladaren gorabeherak, antolatuko ditugun

ekintzen berri izango duzu eta nola ez, baita liburutegi altematiboarena ere.

Iraultz eskuminak
Gasteizko Gaztetxeko gazte asanblada

Mondra taldeari

Gutun honen bidez, Mondra taldeari ohar bat eman nahi diogu.

Ez dakigu zu, Porru, zaren egoeira honen arduraduna; baina zera esango dizugu, gu bezalako gazte asko futbol-zaletasuna galtzen ari gara, partiduak ikusteko ordaindu behar diren 600 pta.gatik.

Bi irtenbide ikusten ditugu:

-Futbola ahaztu, bestela igande arratsalderako ez zaigulako dirurik geratzen.

-600 pta. ostu partiduak ikusteko.

Agian zuek ez zarete enteratu, baina gutariko asko langabezian gaude eta futbola gustatzen zaigu. Hori bai, dirurik ez eta ezin joan.

Beste kontu bat. Ondarruko Aurrieraren aurkako neurketatik irten ginenean, engainatuak sentitu ginen. 600 pta. ordaindu eta taldeko jokalarien erdia ere ez dira Arrasatekoak. Gure 600 pta.k jokalaria horiek ekartzeko badira, nahiago dugu erdia ordaindu, preferenten egon, baina gure herriko jokalaria ikusi.

P.D: Mila esker *Okendo Kiroleri*, kanpoko hesi guztia estaltzen duen propagandagatik.

AUPA PEDRUSKO!!

Arrasateko gazte asko

Paper erreziklatua


Zuzendari Jauna: Astero oso pozik irakurtzen dudanez "Arrasate Press", gustatuko litzaidake jakitea ea planteatu duzuen aldizkaria imprimatzeko paper erreziklatua erabilteza.

Arrazoi ekologikoengatik bai hemen eta bai atzerrian geroz eta gehiago zabaltzen ari dela iruditzen zait.

Gaurko besterik gabe

Sarah-Jane Turtle

Zer deritzozu Eusko Jaurlaritzak xiringak protekzioaz saltzeari?




**Agurtzane
(etxeoandrea)**

Ondo ikusten dut, aurrezaintza mailan lan egiteko era bat da.




**Patxi Ugarte
(langilea)**

Bai, gaur egun arazoa dagoen bezala laguntzaren bat izatea, txikia bada ere, ondo dago.



**Daniel Urzelai
(ikaslea)**

Ondo, aurrezaintza mailan lan egiteko.




**Gloria Ijea
(etxeoandrea)**

Ondo, jakina. Kutsadura arriskurik egon ez dadin.



**HEMEN,
MADRILEN
ETA EUROAPAN,
EGINTZEN
INDARRA DA
BALIO DUENA**



“1987ko irailaren 2an izan nuen Arrasaten gizarte mota eta hizkuntzak mantentzearen arteko erlazioari buruz hitzegiteko ohorea fundatzaileetarikoa batekin, Alfonso Gorroñogoitiarekin, hain zuzen. Elkarte berri honen helburuen artean kulturaren superbizipena egonik, harrিতuta gelditu nintzen jakitean Zuzendaritzaren lan-hizkuntza, hasiera hasieratik, ez zela euskara izan, gaztelania baizik; eta horren zergatia galdetu nuen. Arrazoia, besterik gabe, oso ximplea zen: bost fundatzaile euskaldunen arteko baten elebitasun maila besteena baino txikiagoa zen, eta beraz, erosoago eta funtzionalago suertatu zitzaizen erdarara jotzea. Nahiz eta euskarak beste zenbait arlotan arrakasta handiagoa ezagutu, hazkuntza komertzialari dagokionez zenbait garaitan gaztelania nagusitu da. Batez ere 50-70 urteen artean, orduan kokatu bait ziren herrialde honetan, Euskal Herriko lan eskeintzak erakarritu, Espainiako Eki eta Hegoekialdeko hainbat eta hainbat erdal elebakardun. Lantegi batetik bestera, haietako milaka batzuk Arrasatera etorri ziren, hemen lan baldintza bikainak aurkitu zituztelarik. Milaka erdalidun hauek enpresa txikien hizkuntz demografia itxuraldatu zuten, euskal elebidunak erdarara egokitu bait ziren. Hala ere, 1975etik aurrera, erdal emigrazioaren uholdeak eten egin dira eta biztanlegoa 28.000tan finkatu da. Testuinguru honetan erdalidunen haurrak euskal eskoletan sartu dira, eta honela gero eta gehiago bihurtu da euskara ikasle gazteon erabilera hizkuntza. Joera honek aurrera egiten badu, aurrerik daiteke ingurune sozialak lagundu egingo diola euskararen mantentze eta hedatze prozesuari”.

(Mackey W.F.

Centre International de Recherche sur le Bilinguisme Quebec
Euskara Biltzarra II Euskal Mundu Biltzarra)

Zer dela eta kontratatu ditu Udalak 53 aldi baterako langile, bere plantila finkoa 100 pertsonak osatzen dutenean?

Beno, galdera zehaztu beharrekoa da. Udaletxean bertan 83 langile finkok lan egiten du, baina Iturbide egoitza eta Aukeako langileak kontutan hartzen baditugu 115 pertsonak osatzen du Udaletxeko plantila. Udalak eskaini behar dituen zerbitzu ugari birkontantrazioen bidez betetzen ditu eta funtsean aurreko hori dugu horren plantila finko txikia izatearen arrazoia. Ondorioz, Udalak langile kualifikatu ugari ditu plantilan eta ez kualifikatuak subkontratazioen bidez bete, hala nola garbiketak, lorezaintza etab.

Aldi baterako horrenbeste langile kontratatze-ko orduan arrazoi ugari izan dira kontutan. Batetik beste erakunde batzuk eskainitako aukerak aprobetxatu ditugu, INEMek eta Foru Aldundiak, lan sustapenerakoa luzatutako laguntzak hain zuzen.


Bestalde, Udalean behin behineko lan ugari sortzen da, lan horiek aldi baterako langileak betetzen dituztelarik.

Azkenik, aldi baterako zenbait lanpostuk ez du harremanik Udaleko ohizko iharduerarekin.

Esan beharra dago Udalak esfortzu handia egin duela kontratazio hauek egiterakoan, kosto ekonomikoa suposatzen dutelako, langileen soldataren %50a ordaindu behar duelako eta horrez gain pertsonal finkoaren inguruan horrenbeste pertsona ibiltzeak funtzionamendu arazoak ere sortzen dituelako.

Jose Mari Eraña

Arrasateko Udaleko pertsonal-burua



Arrasatearrok adi!

ARGA altzariak

eraberritze-obrak direla eta, beherapen handiak prezioetan

Zerkaosteta 15, Tfnoa: 79 07 76 Arrasate

**TXITXINPE
BEREZITASUNAK**

Kafea, ardoak, urdaitegia,
fruitu lehorrak

Arrasate Pasealekua 33,
Tfnoa: 79 67 76 ARRASATE

**ARRASATE
PRESS**


astero zuekin

DUO DISEÑO



**OBRAK
BARRUKALDEAK
BULEGO ALTZARIAK
PROIEKTUAK
OSAGAIK**

ITURRIOTZ 21, TFNOA: 79 28 86 ARRASATE (GIPUZKOA)



Urriak 28, larunbata
Gaueko 10,30etan.
Amaia antzokian

IMANOL

“Muga beroetan”

Sarrerak:

Aldez aurretik 400 pta.
(Hire, Biona eta Kajoi taberna)

Takilan 500 pta.

Arrasateko Udala
Gipuzkoako Foru Aldundia

Gorozti jatetxea

BANKETEAK
AGURRAK
NEGOZIOTARAKO OTORDUAK

IREKI BERRIA

Arima zuri 2, Tfnoa: 79 20 02 ARRASATE

ONANDIA
ARRASATE

**Gozotegia
Izozkitegia
Dastalekua**

Iturriotz 11,
Tfnoa: 79 12 31
ARRASATE

LODITASUNA eta ZELULITISA

Oraintxe bertan, ARRASATEtik irten barik,
aprobetxa zaitez gure esperientziarekin

Kontsulta ARRASATEN: SAIOA KULTURA FISIKORAKO ZENTRUA
Informatzeko: Tfnoa: 945 / 25 62 00 eta 25 63 33 (Gasteiz)

INSTITUTO MEDICO GASTEIZ

**ARRASATE
PRESS**

astero zuekin

prentsaren begia

OSTIRALA 20

CORREO: "Arrasateko azokaren eredia Musakolako 'hiper-ak baldintza dezake'"

DEIA: "Babes ofizialeko etxebizitzak eskatzeko epea"

DV: "Musakolako kiroldegian obra berri garrantzitsuak"

EGIN: "Altamirako sustapen publikoko etxebizitzak eskatzeko epea luzatu"

LARUNBATA, 21

CORREO: "Eszeptizismoa Arrasaten saihebideta urte amaierarako bukatuta egoteko aukeraren aurrean"

DEIA: "«Gasteiz Antzerki» taldea Amaian"

DV: "Gas naturala jartzeko Eusko Jaurlaritzaren subentzioak"

EGIN: "«Kalez kale» delakoa berriro herrian zehar"

IGANDEA 23

DV: "Mondra Legarda Futbol-zelaira; Murgiaren aurka"

EGIN: "Arau Osagarrien lehen zatia aurkeztuta"

ASTEARTEA 24

CORREO: "Ertzaintza, Udala eta Udaltzaingoaren arteko elkarlaguntza urte betez jarraituko"

DEIA: "Futbol-taldeak Paco Elices agurtu"

DV: "Mondrak pronostikoak eta Murgiaren inbatibilitatea hautsi"

EGIN: "Arrasateko euskara aztertzeke «Sebero Altube» beka sortu da"

ASTEAZKENA 25

CORREO: "Arrasateko bigarren urtez, kontribuzioaren zuzeneko gestioa"

DEIA: "3 milioitik gorako salmentak Libura-Azokan"

DV: "Udaleko Gobernu-Batzordeak 4 espediente zehatzaile erabaki"

EGIN: "Auzotarren komunitateek gasa bideratzeko hodi bakarra eskatu"

G.E: "Arrasateko liburu-azokak zentzu askotan positiboa izan du"

OSTEGUNA 26

CORREO: "Arrasateko Udalak benetako aukerak ikusi Gorostizan etxebizitzak sustatzeko"

DEIA: "Gaur zine emanaldi berria, hileko kultur programazioaren barruan"

DV: "AEDren lehiaketetan lanak aurkezteko azken egunak"

EGIN: "Arrasateko toxikomanorentzako laguntza zentrua izan lezake".

Usteak uste...

Arrasateko kanpo bizitzeak baditu, zenbait kasutan, bere abantailak. Perspektiba aldatu egiten da, kea ikusteko ikuspegia besterik ez bada ere.

Bergararik natorrela, Roneoko zubiaren ingurutik *Gelmako* tximinia jo eta ke, bai, ke laino izugarria isurtzen ikusi dut zero garbira. Inbertsio atmosferikoak eraginda edo, ke lainoak ez zuen gora egiten eta sapai ikustezina balego bezala, zabaltzen ari zen Mondragoe gainean. Musakolan sartzean auto ilera luzea zegoenez, Santa Marinatik gora egin dut eta Merced ikustetxearen mailan, aurretiaz behetik ikusia hurbil-hurbiletik ikusteko parada izan dut: metal koloredun laino potoloa, Eskualde Ospitalerantz eta hirigunerantz zabaltzen.

Produktzio kopuru eta moldeak aldatzen ez diren bitartean, *Gelma* eta era horretako beste lantegiek pozoin kantitate berdinak isuriko dituzte gure inguruan. Pentsatzen hasteko garaia iruditzen zait ea Arrasateko bizilagunok besterik barik geure egin behar dugun eguneroko zikinkeria hori ala gauzak aldatzen hasi beharko ote garen.

Bazegoen filme bat non zentral nuklear bateko langileek ez zituzten erradioaktibitate isurketak salatzen zentrala istek lanpostuak galtzea lekarkie-keelako. Gure kasuan ez ote da beste horrenbeste gertatzen ari?

Joxe Aranzabal

LA UNION

Garaje elektro-mekanikoa
Agentzia ofiziala

Tailerra: Zaldispe, 2
Erakusketa: Sancho Abarca, 6

ARRASATE Tfnoa: 79 97 12



EMAN
BOTOA
EA

“Tunantes del norte”

Antzerkia egiteko gogo bizian

Hamabi pertsonak osatzen dute “Tunantes del norte” antzerki taldea eta laster bi urte beteko dituzte mundu horretan hasi zirenetik.

“Skets-amos hartas” izan zen haiek landutako lehen obra. Nekatu-ta edo, bigarren lan bati ekin zioten, “Cirio” izenekoa. Soldaduskaren kritika zorrotza dugu, eta jada Monterron, Amaia, Elorrio, Gasteiz eta Garagartzan antzestu dute.

Gastu handiak izan dituzte gaur egun arte (600.000 pta. haien esanetan); eta gastu horiek konpentsatzeko, ekitaldietan lortutako dirua eta Udalak emandako 325.000 pta. ko dirulaguntza. Dena den, lokalaren arazoa oraindik ere konpondu gabe dutela esan behar (eta eskerrak




San Andreseko eskolan tokitxo bat utzi dietela).

Etorkizunerako proiektu berriak dituzte. Hurbilenak, umeentzako mimoa, eta kalean antzesteko lanen bat prestatzea.

■ **Rock jaialdia kiroldegian**
Ostiral honetan, hauteskunde kanpainaren barne, HBK euskal rock jaialdi polita antolatu du. 10,30etan hasita Musakolako kiroldegian.


Bertan aurkeztuko diren taldeak, Aramaio aldetik etorritako *Xementerio*, Eibar inguruko *Su ta Gar* (kurioso hauen Euskal-Heavya entzutea), eta Arrasateko *SS-77* (hemen lehenengo aldiz joko dute. Orainarte Elorrio, Azpeitia, Hernani, Lekeitio eta Irunen ibili dira)

■ **AED ko Batzar Orokorra**
Urriaren 31ean, Monterronen, arratsaldeko 7etan. Gai ugari jorratuko dira bertan: 88-89 balorazioa eta 89-90 kurtsorako ildo nagusiak; diru kontuen azterketa, Estatutuen berri-tapena, etab. Ondoren afari ederra Hostalean. Izena emateko deitu 795446 tfono.ra.



Aurkezpena UNEDen

Oso giro lasaian egin zen Juan Martin Elexpururen “Txakur zaunkak atean” azken liburuaren aurkezpena. Mahaian, Xabier Mendiguren eta egilea bera. Aurkezpenaren ondoren, hainbat galdera sortu zen entzulegoaren artean, ondorioz oso elkarrizketa patxadoso sortu zelarik.



I. C. Elektro Leniz

- * **Industri eta etxeetako instalazio eta mantenimendu elektrikoak.**
- * **Gas natural, gasolio eta elektrizitate bidezko berokuntzak etab. Elpan, Wampan erredagi bidezko sistema; obrarik gabe.**
- * **Airea klimatizatu, garbitu eta girotu.**

Industrialdea, B-5 Tfnoa: 79 03 03 ARETXABALETA
79 05 18 ARRASATE

Memesa


79 42 22

SANIDES

Parasitoel aurre egiteko
insektu narraztiak akabatzeko,
arratolak barne

URTEBETEKO GARANTIA

Erguin kalea 11, Bis. 3. ezk. Tfnoa: 79 22 81



San Kristobaleko Kanposantua

Arrasatek kanposantu berria behar duela argi dago aspalditik. Horrela, Ardanza alkate zenean ere buelta ugari eman zitzaion kanposantuaren kokapenari. Hasiera batean Munar ingurunea pentsatu bazen ere, Alvaro Arregiren garaian gorpuztu zen gaur egungo korporazioak hartua duen erabakia: San Kristobalen eraikiko da.

Xabier Unzurrunzaga arkitektoari egin zitzaion aurreproiektua aurkezteko enkargua. Lanean hasi, eta amerikar erako egitasmoa burutu zuen honek: gorpuak lur-azpiko bobedatan gordeko dira, kanpokaldean zelai bezala geldituko delarik. Bi hektarea hartuko ditu, eta bi bide zabalduko dira; bata Besaideko zabortegia dagoen tokitik, eta bestea Pablo Uranga ostetik abiatuko dena.

Kontutan hartu da aparkalekua egitea, Sarreran halla jartzea, lorategia eraikitzea apingarri gisa...etab. Dena den, aurreproiektuari buruz hitzegiten ari gara. Hau da, Xabier Unzurrunzagaren ideia agian ez da praktikara eramango. Aurrekontua oraindik ere biribildu beharra dago; baina hori bai, Unzurrunzagari bere egitasmoa biribiltzen segitzeko eskatu diote.



GATZAGA
Jatetxea

**Arrasateko
jatetxea**

Olarte kantoia 3,
Tfnor: 79 84 53

Uriarte

SPORT

Kirol denda

Olarte 6, Tfnor: 79 27 78
ARRASATE

ARRASATE PRESS ZEURE ETXEAN DOHAIN JASO NAHI
BADUZU EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN

IZEN-DEITURAK.....
HELBIDEA.....
HERRIA.....

Zeharkale Estalia 1, 1. b -ARRASATE- Tfnor:79 71 64

ARRASATE
PRESS
astero zuekin



Damaso Gallastegi



Berak bialdutako mapa

Hego Ameriketako kontuak

Damaso Gallastegi: Perutik Brasilera, Brasiletik Argentina

Damaso Gallastegi aspaldi hurbildu zen Andes eta Amazonas alde-
ra. Asmoa, esperientzia berriak bizi-
tzen zituen bitartean inguru haiek
ezagutzea.

Hasiera batean mendian ibiltzeko
asmorik ez bazeraman ere, gutxika-
gutxika ekin, eta jadanik 6.040 m.ko
bat behintzat nderki bete du. Horre-
taz gain, Amazonas ibaian ere ez
ohizko istorioa muntatu zuen, Acu-
yali ibaiadarrean hasi eta txalupaz
990 km. egin zituelarik.

Haren esanetan, egoera nahiko
kaotikoa bizitzen ari dira Peru ingu-
ruko biztanleak. Alde batetik, Go-
bernu eta polizia barruan bizi den
korrupzioa; bestetik, "Sendero
luminoso" eta Tupaamaros direla-
koen eraso eta kontraerasoak.

Damaso Gallastegik San Juane-
tarako Euskal Herrira itzuli nahi du.
Heldu bitartean, Brasil eta Argenti-
na ezagutzeko helburuak lortu gura-
ko ditu. Zorte ona izan mendikate,
oihan eta ibai galdu horietan.

San Viator eguna

Ostiralean ospatu zuten San Via-
tor eguna, primerako eguraldiaz
gainera. Urriaren 24a bada ere patro-
nuaren eguna, larunbata zenez gero,
bezperarako antolatu zuten jaiak.

Neska-mutikoak talde ezberdi-
netan banatu zituzten OHOKo ha-
sierako zikloarentzat diapositibak,
jokuak, dantza saioak eta kantak.
Erdi zikloarentzat meza, filmea eta
dantza txapelketa.

Goi zikloarentzat meza, jokuak
eta jaialdia.

Batxilergokoez ekitaldi ezber-
dina izan zuten. Meza, antzerkia,
futbol txapelketaren finala, triple eta
mate saioak, xake txapelketa eta
karta txapelketa, besteak beste.

REMekoek taberna eratu zuten
neguan eskiatzera joan ahal izateko,
eta irakasleek ere izan zuten euren
bazkari ederra Txopekuan. Egun
polita, beraz, jaigiroan eman eta
ospatu zutena.

Jaiotzak

Guridi Sodupe *Ainhoa*
Urriaren 16an
Elorza Sagasta *Aitor* 17an
Castañeda Sánchez *Steven* 19an
Polanco Arejolaleiba *Ioritz* 19an
Zuazubizkar González *Oier* 22an
Jiménez Corbacho *Alba* 24an.

Ezkontzak

Juan Manuel Agirre Arregi & Miren Lorea
Aranburu Agirr Irailaren 30ean
Pablo Moto Benítez & M. Dolores Valor
Caballero. Urriaren 14an.



comercial SUMOFIC, S.A.

ZERBITZU INFORMATIKOAK

**ENPRESA-GESTIO INTEGRATURAKO PROGRAMAK,
STANDARak ETA NEURRIRA.**

**DATU-BASEAK
OFIMATIKA
MANTENU-ZERBITZUA
*Ekipamendu eta programak
*Telemandua**

Isasi 21, Tfnoa: 70 11 67 / 70 28 66 Fax: 76 42 49. EIBAR



Corporación: UCEM S. A.

Egoitza Donostian, eta %50eko kapital zabalkuntza

Unión Cerrajerako akziodunen batzarre nagusiak larunbatean elkartari izena aldatzea erabaki zuen hemendik aurrera Corporación UCEM S.A. deituz. Korporazio berriaren lehendakariak, Jesus Lobo Aleu jaunak iragarri zuenez, korporazioak egoitza soziala Donostian izango du; administrazio kontseiluan lau aholkulari berri sartuko dira eta %50eko kapital zabalkuntza burutuko da. Korporazioak, Roneo, Unión Cerrajerá, Saltos Olate, Salto de Bergara eta Ucem sistemas biltzen ditu.

Unión Cerrajerá, bi elkartetan banatuko dute, Cerrajería S.A. eta Transformados Metálicos S.A. Cerrajería enpresa zerrailagintzan arituko da eta Transformados Metálicos-ek butano bonbona, kamioientzako gurpilak eta hotzean burututako laminazioa egiteari ekingo dio.

Bestalde, prentsaurrekoan bertan, Roneoren lantegi berria ia bukatuta dagoela iragarri zen. 2.000 milioiko inbertsioaz, 1990eko lehen hilabeteetan martxan egotea espero da.

Eman zeurea

Transmisio kanpainaren bigarren fasearen barne, "Tómalo tú-Zeuk hartu" delakoa hain zuzen ere, Udaleko Euskara Zerbitzuak gurasoentzako euskara klaseak antolatu ditu. Helburua, umeak eskolan ikasten duten heinean, ikasitakoa nolabait eskolatik kanpo aktibatzea. Horretarako, gurasoen euskararen komunikazio-gaitasuna lortu nahi da.

Eskola guztietan umei informazio orri bat banatu zaie, bertan izena, auzoa, euskar maila, klase-orduak, etab. galdetzen zaizkielarik.

Guzti hau interesatzen zaionak, deitu dezala Udaleko Euskara Zerbitzura, 790900 tfno.ra (54, luzapena).



comercial SUMOFIC, S.A.

PROFESIONALAK GARA:

**IDAZKERA ELEKTRONIKO,
FOTOKOPIAGAILU,
TELEFAX,
etab. etan.
MANTENU-ZERBITZUA**

San Lorenzo A. 25 Tfnoak: 76 21 46, 76 59 03. 162 Postakutxa **BERGARA**

EPPko bitarteko Batzarra

Gaur egungo egoera aztertu zuten: helburuak, planteamentuak...

Ostiral arratsaldean EPPko batzar interinoa egin zen, gaur egungo eskolaren egoera aztertzeko. Horrela, bost puntu ikutu zituzten batzarrean zehar: helburuak, planteamentuak, kalitatea, lan egoera eta eskolak izan ditzakeen hutsuneak.


Helburuei dagokionez, prestakuntz maila hobetzea eta onartuak dituzten inbertsioekin aurrera jarraitzea (220 milioi eman dira 88-93 egitasmoan sartutako 800etatik).

Planteamentuak aldatzen ari dira. Teknologia industriaren mundua menderatu duenetik, ikasleen prestakuntza ere aldatu beharra izan dute prozesu guztia egokitzeko. Espezializatze garaia bizitzen ari dira.

Eskolaren kalitatea

Kalitate maila ez da erraza halanola neurtzea; dena den, balorazio positiboa eman zuten. Badago muga bat, injinerutzako masifikazioa. Hainbeste ikasle berri datoz urtero zaila da guztiei behar bezalako erantzuna ematea. Azpimarragarria da, ordea, Eskola Politeknikoa proiektu erakargarria dela irakasle, ikasle eta baita enpresentzat ere.

Irakaskuntzatik aparte, *Saiolan*,



Batzar aretoa bete-bete eginda

Iraunkor, *Goier* eta *Zerbitzu zentralen* egoera ere aipatu zen. Gaur egun behar bezala funtzionatzen dute *Saiolan*, *Iraunkor* eta *Goierrek*. *Zerbitzu zentralak* denbora berriei egokitzen ari dira.

Lan egoerari dagokionez, ordutegiaren flexibilizazioa eman da. Era berean, departamentuen partizipazioa bultzatu nahi dute, beraien rola indartu. Guzti hori banaketa berriarekin lotuta.

Hutsuneak konpontzekotan

Bukatzeke, esan hutsune batzuk ere nabari zaizkiola Eskola Politeknikoari. Horrela, dokumentu bat egiten ari dira bertan pertsonal politika aztertzeko. Besteak beste, eskalduntze prozesua, garapen-prestakuntza binomioa, erantzunkizunak, garbiketa kontua, etab. bultzatu nahi dira, lan estilo berria biribiltzeko.

X. GOROSARRI eta M. L. TROJAOLA

ERREUMATOLOGIAN SENDAGILE ESPEZIALISTAK

Frantziako Lyon-go Unibertsitatean Titulatuak

BIZKARREZURTERAPIA

Erreumatismo handigarriak (erreuma-artritis, espondiloartritis, lupusa, hezueria...) Hezurretako gaixotasunak (Osteroporosia, osteomalacia, pagets) Artrosia, lumbagoeriak, ziatikak, garondoeria, etab...

KONTSULTA ORDUA AURREZ ESKATU

San Vicente Ferrer, 4 etxebea. Esk. ARRASATE Tfnoa: 79 27 67
San Jose Policlínica. GASTEIZ Tfnoa: 945-22 33 00



**ARRASATE
PRESS**
astero ziuekin



Ez da horma garbirik gelditu

Bukatu da, akabo

Kartelak, mitinak, bazkariak... eta orain U-29a

Igandean arrasatear asko hurbilduko da U-29ko hauteskundeetan botua ematera. Ondoren izango dugu nahi beste balorazio egiteko astia.


Momentuz ohizko kanpainan murgildu gaituzte politikoek.

Xabier Arzallus izan zen Arrasatera etorri zen lehena, Batzokiaren hamargarren urteurrena zela eta. Bere atzetik beste guztiak: HBren *Kalez Kale* eta herri bazkari, EEren "*Liberty*" autobusa, PSOEren mitina Monterronen Ramon Jauregi eta

Claudio Aranzadirekin, PPko Gregorio Ordoñez karameloak eta propaganda banatzen... Eta kaleak, mota guztietako propagandaz josiak.

Guztiek dute arrazoia, denak dira onenak. Erantzuna, igandean bertan. Gero helduko da garaia batzuen parreak eta besteen negarrak ikusteko. Momentuz behintzat, hasi daitezke hurrengo prestatzeko, hauteskundeen kontua erakargarriago bihurtu nahi badute.

Azken ekitaldiak



ARRASATE KIROLAK

*Deba Garaiko kirol dendarik garrantzitsuena
Kirol bakoitzarentzat, erantzun egokia*

KIROLAREN ETORKIZUNA ESKU ONETAN DAGO!!!

Kontzezifio kalea 8, ARRASATE Tfnoa: 79 46 12

botu saltsa

● "Tontoa ez naizelako ondo asko dakit zer den mamia eta zer dagokion ikuskizun soilari hauteskudeetan. Horrexegatik maite ditut kanpainak, honelakoetan ikuskizuna delako nagusi". Ez da, ez, Arantxa Urretavizcaya idazlea horrela pentsatzen duen bakarra izango. Izan ere, zer dira hauteskudeak ikuskizuna kenduz gero?

● Bartzelonako kaleetan zehar ibiltzeko aukera izan dugu eta han ere kanpainaren arrastoak nonnahi. Gauza kuriosorik aipatzekotan -kontraste kontua, badakizue- Madrilgo gobernuko partiduaren kartelak. "Vota PSC" esaten zuten Felipe edo Serraren aurpegiak zeramatzen kartekek. Arrasaten eta Euskal Herrian barrena ipini direnek ez dute PSE edota PSE-PSOE esaten, "Vota PSOE" baizik. Estilo kontua, nonbait.

● PSOEekin segituz, Ramon Jauregi eta Aranzadi jaunak izan genituen astelehenean Monterron jauregian. Gure kazetaria, kamara gainean, sartu zenean, bi morroi handi horietakoak haren atzetik igo ziren. Argazkiak atara bitartean, han, geldi, begira. Irten zenean, mutilak ere atetik, eskileretan behera. Esan genion lankideari, hurrengoan korbata eta guzti joan beharko duela, susmo txarrik ez eragiteko.

Txandaka

Emearekiko medikuntza

Ginekologiaren arloan, esan genezake, azkeneko hogeitabost urte hauetan, aldaketa haundiak ikusi ditugula.

Emakumearen gorputzaren fisiologiaren ezagutzari dagokionez (baita gizonarengan ere), aurrerapausu nabarmenak eman dira.

Honen ondorioz, birsorkuntza prozesuaren mediku-kontrola lortu izan da.

- Alde batetik antisorgailuen bidez, haur kopurua murriztu egingo dugu gure desioen arabera.

- Esterilitate arazoak dituzten emakumeek edo bikoteek, lehen ez bezala, beren haurra edukitzeko posibilitatea izango dute kasu batzuetan.

Benetako aurrerapena, nere us-tez, oro har, gizakiaren askatasuna eta oreka kontutan hartzean legoke. Aipaturiko bi alorretan, ordea, horrela gertatzen al da?

— Antisorgailu efikaz batzuk lortzerakoan, bikoteen sexualitatea aberatsago bilakatu beharko luke. Baina benetako errealitatea beste bat da. Jeneralki, antisorkuntzaren helburu nagusia haur-kopurura "planifikatzean" datza, plazerra, komunikazio-maila, betiko ohituretan murgildurik jarraitzen dutelarik; koitoak, berriz, oraindik toki haundiagoa hartzen du sexu-harremetan, betiko eskemak indartuz.

— Birsorkuntza artifizialaren arloan, teknika aipagarriena, inseminazio artifiziala eta "in vitro" ernalkuntza dira.

— Inseminazio artifiziala, gizo-



Arantza San Miguel*

nezkoen esterilitate-arazoak tratatzen ditu (emakumean, gizonezko bikoterik ez zuenean erabilia izan da), teknika sinplea da, hazia emateko donantea behar delarik.

— "In vitro" emalkuntza, komunikabideei esker oso ezaguna (entzuna behintzat) egi-

ten zaigun teknika. Lehendabiziko haurra jaienez gero (orain dela hamaika urte), ehundaka, behar bada milaka haur jaiotako "In vitro" ernalkuntzari esker. Egunkariet irratietan edo telebistetan, "In vitro"ren beste aurpegiak. Hain zuzen, emakumearen "via crucisa" horretara iristeko (kontsultak, analisiak, operazioak, frustrazioak...)

Eta hori jasan ondoren, kasu gehienetan, bere ametsetako haurra horretan gelditu da, ametsetan... (emaitza baikorrak %20an dabilta)

Teknika hauen erdian kokaturik, zer esaten du emakumeak? Noiz entzun dugu bere abotsa? Normala ote da amatasun biologikoaren ize- nean hau dena onartzea?

Haur desioa asetzeko beste irtenbide batzuk bila genitzake.

Esterilitatea, berriz, emakumeak pairatzen duen presioa, zoritxarrez, gogorra da.

Burutapen hauei amaiera emateko, nire azken galdera honetan datza:

Emakumearen inguruan murgiltzen den zientzia mundua, emakumearen interesei erantzuna eman ordez, ez ote da berarekin zerikusi gutxi duten beste interes batzuen menpe aurkituko?

(*) Medikua

ATOR



PEUGEOT TALBOT

INDAR DINAMIKOA

P-405 DIESEL eta
TURBO-DIESEL
INTERCOOLER BERRIA

Arrasate, Gipuzkoa Etorbidea z/g

Tfnoa: 79 94 11

Bergara, Torrekoa 2, Tfnoa: 76 23 75

Izen propioak



Esther Telleria, Marivi Serrano eta Ana Elbustok zabaldu berria dute *Nutrisan* zentrua, non elikapen-osasun eta kirol medikuntzan arituko diren. Zentrua Kale aldean kokatuko da, 11 zenbakian, eta Urriaren 30ean hasiko dira bezeroak tratatzen. Kontsulta ordua eskatzeko, deitu 796578 tfno.ra.

■ **Asier Aranguren, 24**, kazetari aretxabaletarra Bostongo MIT (Massachussets Institute of Technology) izen handiko Unibertsitatera joan da masterra egitera, CEOek emandako *Fullbright* bekari esker. Leioan ikasi bitartean Asierrek ETBn egin du lan hiru urtez.

■ **Xabier Gallastegi, 28**, plaentxiarra izango da Arrasateko Udaleko apailari berria. Xabierrek Burgoen ikasi zuen Aparejadore eskolan eta lau urte t'erdiz Soraluzeko Udaleko apailaria izan da. Ramiro Gonzalez ordezkatu du.

■ **Julen Arejolaleiba, 26**, Eusko Jaurlaritzak 250.000 pta.ko beka eman dio "*Don Jose Maria Arizmendiari eta euskara*" lana egin ahal izateko. Julenek Magisteritza ikasi du, UNEDen eman ditu euskarazko klaseak, AEDko liberatua izan zen bi urtez eta gaur egun Soziolinguistika irakasten du Eskoriatzako Irakasle Eskolan.

■ **Javier Calleja, 15**, Gasteizera bizitzera joan berri den ofatiarrak Espainiako VII Trialsin Txapelketa irabazi du Matadepera, Bartzelonan. Orain hiru urte erosi zioten lehen bizikleta, baina pare bat urte darama seriotan lehiatzen. Javier REM ikasten ari da Gasteizko Institutu Politeknikoan.

■ **Gerardo Markuleta, 25**, ofatiarra literatur kritikak idazten hasi da *Zabalik* eta beste zenbait komunikabidetan. Euskal Filologia eta Hispanicas ere ikasi ditu Donostian, Ovie-don eta Gasteizen. S. Viator ikastolako zuzendari pedagogikoa da eta Arrasate Presseko kolaboratzailea.

Ostiral goizean, **Ttapi Ttapa** Nafarroako aldizkariak izan genituen bixitari. Bortziri eta Baztan inguruan zabaltzen dute aldizkaria. Nafarroako idazle gazteek hartzen dute parte bertan, literatur arrobia landuz.



Pedro Luis

Jose Luis Vicario eta Nati Soriano gazteek S. Juan eguna aukeratu zuten ezkontzeko. Arrasateko Merceden ikastetxeko elizan. Zorionak.

CE

ERRASTI KRISTALDEGIA

**Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
akzesorioak**

Olarte kalea, 47 behea Tfnoak: 79 22 55 79 14 25

**EMAN
BOTOA**


EA

Hiltzeko ere dirua behar

Heriotza poltsikoak zulatzen dizkigun agur garratza

Dagoeneko bertan dugu Domu Santu eguna, jadanik asko eta asko hasiak dira, panteoi eta hilobiak konpondu eta apaintzen, eguna heltzean ahalbait eder edota txukunen egon daitezten. Joandako gure lagun eta senitartekoez oroitzeko eguna dugu hau, eta azken finean denok amaiera bera izango dugula gogoratzekoa.

Bizitza honetan ondo ala txarto bizi, azkarrak ala leloak izan, aberats edota txiroak, denok amaiera bera, ezin ukatu. Hala ere, diruak bizitzan beste bereizten gaitu heriotzean.



Laster lekuz aldatuko dute

Hiltzeko ere dirua behar

Hiletaren bat suertatzean, gastu ugari sortzen zaio hildakoaren familiari. Hilkutxa, lore koroa, eskela, gorpua hilobiratuko duten lekuan egon ezean bertara eraman beharra, hileta elizkizunak, etab. Denetan garestiena zerraldoa dugu, berau egiteko erabili den egur motak gauzak garestitu edota merkeagotu egiten dituelarik. Zerraldo merkeenak pinu-egurrez egindakoak ditugu, 20.000-30.000 pta. ingurukoak eta garestienak kaoba egurrezkoak, 300.000 pta. tik gorakoak. Zerraldoa forratu edota apaindu zerez egiten dugun ere kontutan izatekoa dugu, prezioak, nahi beste, gora egin dezake eta. Hilkutxa garestia bada hiletetarako lore-koroa ere aipagarria da. Lore koroa merkeenak 12.000 pta. inguru balio dezake eta garestienak

50.000 edo gehiago. Aipatzekoa da Domu Santu eguna hurbiltzean lorak garestitu egiten direla. Arrasateko loradenda bateko arduradunak aipatu digunez, normalean 12.000 pta. balio duen koroak 15.000 pta. balio du egun hauetan gero berriz ere merketzeko. Baina honekin ez dira

ezean, kilometroko 60 pta. inguru ordaindu beharko dugula, tramite ugari aurre egin beharko diogun bitartean. Bestalde, atzerrian hilez gero, gorpua amortajaturik eta zerraldo berezi batean ekarri beharra dago gastuak ikaragarriak direlarik. Azkenik hileta elizkizunak ordaintzea falta zaigu eta Udalari panteoirik izan ezean hamar urtetarako nitxoa alokatzea, 13.000 pta. ordainduz. Gaur egun Arrasateko hilerria, herriak urte gutxitan izan duen handitze ikaragarriaren ondorioz, txiki geratu da. Honi aurre egiteko, Udalak San Kristobalen kanpusantu berria eraiki behar du. Edozelan ere, kanposantu berria eraiki bitartean Arrasateko hildakoak hilobietan hilobiratu beharra dago panteoi edota antzekorik egiteko lekurik ez dago eta. Hala ere, aspalditik panteoien jabe direnak 850 pta. ordaindu beharko diote Udalari hileta-eskubideen truke.

Orotara hileta merketxoa ordaintzen 80.000 pta. baino zerbait gehiago gastatu beharko dugu, hau baino garestiagoak normal samarrak direlarik.

Normalean aseguratuta

Hiletak duten salneurri ikaragarria kontutan izanda jendeak aseguratuta egin ohi du bere hileta, urtean hainbatekoa ordainduz heriotzerako orduan hiletak ordainduta izateko.

Hileta merketxoa ordaintzen 80.000 mila pta. baino zerbait gehiago gastatu beharko dugu

bukatu hileta bateko gastuak, Egun-karrietan jarritako eskela ordaintzen 15.000 pta. inguru gastatuko dugu, kalean jartzen diren eskeletan 3.000 pta. eta hilautoa erabiltzeagatik 13.000 pta. Aipagarria ere, hildakoa hilobiratuko duten tokian egon

Aseguru hau egitean, norberaren hileta aukeratzen da, zerraldo mota, koroak etab., hil ondoren hildakoaren familiari gastu hauei aurre egin behar ez izateko.

Arrasateko ehorztetxeetan azaldu digutenez, hildakoen erdia inguru

egon ohi da aseguratuta. Edozein modutan ere, aseguruete handien eta herrietako kofradia edo anaiarten artean bereiztu beharra dago. Aseguruete handiek hileta osoa aseguratzen duten bitartean, herrietako anaiarteek hilkutxa eta hileta elizkizuna baino ez dituzte ordaintzen, beraz garbi ikusten denez, beste gastu ugari ordaindu behar izaten dute familiek. Zenbait arrasatearrek hitzegin ahal izan dugu gai honen inguruan eta gusto guztietarako erantzunak jaso ditugu. Josek "bai nik San Antonioren ordaintzen diot urtean hainbestekoa familia osoaren izenean, behintzat gu joandakoan zor pilari aurre egin beharrean aurki ez daitezten". Aitorrek berriz, "nik aseguruete bati nire hileta ordaindu? ezta pentsatu ere, ni hiltzean nireak bukatuko ditut eta hor konpon!"

Ehorztetxeak ardura beren gain

Norbait hiltzean ehorztetxeari deitu eta hortik aurrera etxe horren esku geratzen da lan guztia. Normalean familiartekoak izan ohi dira ehorztetxeetara deitzen dutenak eta istripuren bat edo suertatuz gero, Ertzaintza. Ehorztetxeetako arduradunen hitzetan lan hau norbaitek egin beharrekoa da eta ez da uste bezain desatsegina. Lana egitera-

aurre egiteko oso gomendagarria omen da aseguruete egitea. Arrasateko ehorztetxe bateko arduradunak azaldu digunez, gaur egun bizitza oso aldatu da, bidaiak eta joan-etorriak oso normalak dira eta anaiarte txiki

eta. Gauzak horrela, hil bezain laster gorpua familiartekoen esku uzten dute. Familiek, sarritan ez dute izaten gorpua gordetzeko leku aproposik, horregatik arazo ugari jasan behar izaten dutelarik.



Ez dago leku gehiegirik Kanposantuan

batean egindako aseguruete ez da gomendagarria, trasladu gastuak ez dituztelako betetzen eta hauek suertatu ohi dira garestien askotan. Hau horrela izanik ulergarria suertatuko zaigu eritetxeek, gaisotasun zengaitzez jota dagoen jendea, hiltzera etxera bidaltzea.

Problema hau ez dugu Arrasatekoa bakarrik. Beste zenbait hiri eta herri handietan arazoa bera izanda Tanatorioak ari dira sortzen, arrakasta handiaz gainera. Iruñean esaterako, duela lau bat urte lehen tanatorioa jarri zuten eta dagoeneko hiru dituzte. Tanatorioak, hildakoak izateko leku aproposak ditugu, hileta elizkizunak izan arte gorpua bertan egongo da, eta berauek izango dira gorpua garbitu, amortajatu etab. egiteko ardura izango dutenak. Edozein modutan ere, zerbitzu hau ere ordaindu beharrekoa da, aurreko guztiari gehitu beharreko gastua bihurtuz. Beraz, garbi ikusenez, bizitzan bezain garrantzitsua dugula dirua heriotzean eta gure poltsikoen araberako hileta izango dugula.

Hiletak duten salneurri ikaragarria kontutan izanik jendeak aseguruete egin ohi du bere hileta

koan ahalik eta kontu handienarekin egiten dute, konturatzen bait dira familiak samindurik egon ohi direla. Hileta elizkizunak oso garesti suertatzen direla onartzen dute eta horri


Bestalde, arrasatear gehienak Gasteiz edota Donostian hiltzen direla aipatu digu eta Arrasateko ospitalak gai honen inguruan dituen hutsak salatu, gorpu-gordailurik ez du

ILE - ERORKETA

Oraintxe bertan, ARRASATEtik irten barik, aprobetxa zaitez gure esperientziarekin

Kontsulta ARRASATEN: SAIOA KULTURA FISIKORAKO ZENTRUA
Informatzeko: Tfnoa: 945 / 25 62 00 eta 25 63 33 (Gasteiz)

INSTITUTO MEDICO GASTEIZ



MAHAINGURUA

Gaia: **SOLDADUTZAREN AURREAN ZER EGIN?**

Gonbidatuak:

Euskadiko Ezkerrako gazteak

Kakitzat talde antimilitarista

EGI

Jarrai

Eguna: **Azaroak 2, osteguna**

Lekua: **Monterron Kultur Etxeko hitzaldi-aretoa**

Ordua: **Arratsaldeko 7etan**

**Ez galdu, hurrengo ostegunean, gai honetaz
ondo informatzeko duzun aukera hau!**



ARRASATE 89 LEHIAKETAK

BERTSO PAPERAK

IPUINA

POESIA

KOMIKIA

BIDEOA

ARGAZKIA


Diptiko eta informazioa: AEDn, Pablo Uranga 4, Behea. Tfnoa: 79 54 46

**SARI GARRANTZITSUAK
ANIMATU ETA PARTE HARTU!!!**

Lanak aurkezteko epea: 1989ko azaroaren 1a

AEDk antolatuta, Arrasateko Udalaren laguntzaz





Kiñu

“Nik gauza bat jaukat ederra: zer galdurik ez”

J. M. Elexpuruk “Txakur zaunkak atean” liburua argitaratu du

Arrasate Presseko “Zelebrequerixak” atalean idazten dituen pasadizoengatik izango du askok ezagun. Bergarako UNEDen irakasle delako beste zenbaitek. Juan Martin Elexpuru uberarra, zer esana emango duen liburu baten egile dugu. Orainarteko ipuin bilduma, itzulpen eta irakaskuntza munduan argitaraturiko materialek literatur sorkuntzari eman diote lekua, eta horixe dugu hain zuzen ere, gaurko elkarrizketaren gaia. Solasaldi atseginerako modua ematen duen gizona, inolaz ere. Izakerak eta lehen liburua argitaratzeak ematen dion lotsa ikutuarekin irrifarrez erantzuten dakiena.

— Nondik ateratzen dituzu ipuin bildumetan eta astero Arrasate Pressen argitaratzen dituzun gertaerak?

— Liburuetan edo nonbaiten irakurritakoak eta afarietan eta bestela entzundakoak gogoan hartu eta moldatu egiten ditut. Inoiz asmatu edo entzundakoren bat borobildu ere bai, baina normalean asmatu ez, zaila da asmatzea.

Liburu berria

— Liburu berria, aurrekoak irakurri dituen batek espero izango ez lukeen modukoa da, literatura baita oraingoan kaleratu duzuna. Nondik norakoak dituzu?

KIÑU

Artekalea 15, Tfnoa: 76 58 05 BERGARA

ARGAZKIDENDA

Argazkilariak

NIKON banatzaile ofiziala

— Bi edo hiru sariketa batera aurkeztutakoak dira, eta gainontzekoak, berriz, liburua argitaratzeko sortuak. Lehena 85ean egin nuen eta azkena 89ko hasieran, ez bait dut orainartekoan jarraipenik izan, noizean behingo lana da. Aurrekoarengandik ezberdina da, bai, gehiena asmatutakoa baita, neure burutik ateratakoa eta literarioagoa, serioagoa ere.

— *Zergatik ez zenuen, bada, salto hori aurretik eman?*

— Nik beti konplejo handia izan dut idazteko; baina konplejoa kendu egiten zait beste idazle batzuei irakurrita. Ez dago beste munduko mailarik, batzuk kenduta, jakina. Asko publikatzen da eta ehuneko handi bat nahiko kalitate bajukoa, bai hizkuntza aldetik eta baita literarioki ere. Jende asko dago gauza dena ondo idazteko eta idazten ez duena, alferkeriagatik, konplejoagatik, edo nik ez dakit zergatik.

— *Gaiaren aldetik, sozialak, sexua, politika, pertsonaien bizitzak, mitologia... Baina denak umore ikutu berezi batekin, ezta?*


— Bai, gaien artean denetik dago, ikus dezakezunez, eta horrek esan nahi du saltsero samarra naizela, handik eta hemendik pikatzea gustatzen zaidala. Umore gaiaren barruan sartzan ahalegintzen naiz, baina beti horretarako

“Nik beti konplejo handia dut idazteko; baina konplejoa kendu egiten zait beste idazle batzuei irakurrita”

bidea dagoenean, eta gainera ezin da pentsatuta egin, berez irten behar du. Esate baterako, *“Hautagaiaren paperak”* ipuinak aukera ematen du horretarako, eta beste gai serio batzuk ere trata daitezke umorez, bizimoduak badu eta bere alderdi komikoa ere.

— *Zenbateraino da autobiografikoa? Karreristarena, adibidez?*

— Nik uste dut baietz, ipuin hori behintzat bai, ni txikitan ziklista bait



J. M. Elexpuru

Kiñu

nintzen eta orain ere egiten ditut ekinaldi batzuk. Bestetan ez asko, beti dago bizimoduko zerbait isladatuta, baina...

— *Hala ere, espazioaren aldetik oso erreala da, Bergara, Ubera, Euskal Herria agertzen dira beti.*

— Egia da, eta niri hala irten zaidalako da. Hala ere uste dut gure herrian joera gehiegi dagoela nobelak Indian, Txinan edo Hamburgon kokatzeko. Joera handia dago hurbileko errealitatea aldentzeko eta gehiegi egiten denean sospetxosoa iruditzen zait. Pudore gehiegia txarra da, eta nik behintzat liburu hau kasualitatez bukatu nuen, eta orduan akordatu zitzaizkidan azken ipuineko pertsonaiaren hitzak: “nik gauza bat jaukat edarra: zer galdurik ez”

— *Erabili duzun hizkuntzaren aldetik, batuz idatzita egon arren, nabarmena da istorioak bergarrez pentsatuta daudela.*

— Bai, hala da. Batuz idatzia dago, baina batua izan daiteke Bermeokoa edo Zuberoakoa eta nik neurea erabili dut. Ez dut gaizki ikusten idazterakoan norbera bizi ez den lekuko hitzak erabiltzea, baina kanpokoekin arrisku handia dago hanka sartzeko.

Segurura jotzea izango da, baina gehienbat aho-hizkuntza edo espresioen arteko lotura dela eta, ezin da kontatzen dena espresio jakin batzuk “sartzeko” aprobeztatu. Hizkuntzak narrazioaren zerbitzutan egon behar du aitzitik. Esan behar duzuna esateko espresio egokiak badituzu, hainbat hobe.

Arantzazu Loidi

Kritika

Kontu hotsak atean

Itzulpengintzan, euskalaritzan, eta haurrentzako ipuingintzan aritu ondoren, hona datorkigu Juan Martin Elexpuru bergararra asmo sendo eta norabegira altuagoko lan batekin: Txakur zaunkak atean, Elkarren argitaratu berria. Ipuin bilduma dugu liburua, era, luzera, giro eta emaitza ezberdinetako ipuinek osaturiko bilduma.

Esan beharreko lehen gauza: liburua samur, gogoz eta irribarre jarraitu batez irakurtzen da, eta hori ez da gutxi gure literatur mundutxo honetan. Badu idazleak trebetasun nabarmena istorioak kontatzeko, umore zitzadak mementu egokietan sortzeko eta hizkera herrikoia- ren esakera eta moldeak diskurtso narratiboan -kirrinkak sortu gabe txertatzeko.

Istorioen muinari dagokionez, nabari da ipuinetan euskaldunon eta euskal literaturaren zenbait mito eta topiko apurtzen saiatu dela Elexpuru: erlijioarekiko larregiko errespetua San Joseren erretolika txisposoarekin; sexu kontuekikoa bi-bragailua aberiaturik eta non-nola konpondu ez dakien neska ardurauarekin. Badira, baita ere, haurtzaroko oroimenak, euskal mundu tradizionala eta herri mailako kontakizunak oinarritzat harturik eraturiko ipuinak (“Karrerista baten hasierak”, “Bi begi eder haiek”, “Bidasoako azken lamina”, “Tomas Marki”). Politika kontuak ere gertutik eta modu ausartan ikutzen ditu “Antzaren zain” ipuinean, literatur erreferentziak jositako bukaeraz, gainera. Literatur kalitateari dagokionez, agian liburuari izena ematen diona izango litzateke borobilena.

Arrisku bat ere badu Elexpurren lehen literatur lan honek: pasadizoetan, umore zitzadetan eta hizkera herrikoia- ren lanketan abildade galanta erakutsi digu; baina hori, bertute izatez batera, kalte ere gerta daiteke, horretan soilik geratzen bada, behintzat. Ezen benetako literatura eta gaitasuna ikusten zaito Elexpurrari, batez ere lehen ipuinean- horrez gain erreflexioa, sakontasuna eta zirrara sortzailea ere bada. Ez dakion gerta Juan Martini bere ipuin bateko pertsonaiari, Pepe Contrerasi hain zuzen, gertatutakoa: hurbiltasun larregikoak ez diezaion ikuspegi orokorra galdu eragin.

Gerardo Markuleta

Bidasoako azken lamina

Denbora luzea zeraman itzarrita eta berriro lokartzeko sistema guztiak probatu zituen arren, ezin zuen inondik inora begirik bildu. Argi zegoen logura arrastorik ez zitzaiola gelditzen. Koba bazterreko arasa batetik urrezko orrazia hartu eta irteerara zuzendu zen ilargiaren argitasun leun horixka hura aspaldiko partez sentituzera.

Zenbat aldiz zin egin zion bere buruari ez zuela berriro lurraren azala sekula santan zapalduko, hura gertatu zenean. Bezperako gauzatat hartzen zuen guztia loaldi bakarria egina bait zen harrezkero, baina konturatu zen beharbada munduan ehun, berrehun edo hirurehun urteak igarokoak zirela, denborak ibilera ezberdina bait du kobazulo barruan eta kanpoalde zoro hartan.

Ondo gogoan zuen elkar ezagutu zuten eguna. Aspalditik zuen begiz jota Etxebeltzeko mutil ezpain borobil beltzarana eta gau hartan zubipean itxoin zion ilargi betearen argitan, eguzki printzen koloreko bere ile luzea apainduz.

Mutila bidean somatu zuenean, ordurako propio asmatua zuen kanta hari ekin zion ahots xarmangarri.

Etxebeltzeko maiorazkoa
gerri lirain
hanka orein
begi eztizkoa

Mutila, lamina-kanta liluragarri hura entzutean, itsuturik bezala hurbildu zitzaion bere aldamenera, ibai erdiko arloza zabalean eser-tzera.

Harrezkero kanta liluragarri ez zuen behar izaten mutilak etortzeko. Ilargia bete xamar zen guztietan han ziren biak, elkarri kontutxoak eginez, egunsentiarate amodiozko besarkada luzeetan bilduz goxo.

Ahate-hankak zituela konturatu zen hartan nahigabe handia izan zuen mutilak eta bi edo hiru ilargitan ez zen beren maitearen besoetara itzuli, baina berriro ere laster zen han sekula baino sutuago, elkarren-ganako amodio hura ezerk ez zuela itzaliko zin eginez.

Handik aurrerakoa nahiago zuen ez gogoratu. Geroago jakin zuenez, Maripetraliñ laminak, bekotearen zorionaz jelosturik, gau batez mutilari bidera irten eta gezurrik higuigarrienak kontatu zikion. "Bai, ikusiko duk, erabat liluraturik hauka llederrek eta berak ere maite hauela uste duk. Ai gizajoa. Laminak oso aldakorrek gaituk. Eztian ezti baina zitalean, inor baino zitalago. Begira, hitaz aspertzen denean, kris kras jango hau, beste batekin lasai joateko", kontatu zion doilor hark mutil harrituari.

Harrezkero Etxebeltzeko mutila ez zen lehengoa izan. Herriko atsoen lamina ipuinetan ere antzekoak aditu zituen nonbait eta ez zen gehiago ibaira ilargitan agertu.

Laminak gau osoak eman zituen zain, tristurak arintzeko zapo kantuak eta ur marmarra beste lagunik gabe. Egun argiz ere arriskatu zen behin baino gehiagotan eta baita ikusi ere bere bihotzeko azukre koxkorra; noraezean, triste, zurbil, bere begi beltz ederren distira moteldurik.

Ezkundu zen egunean ere sasi ostetik ikusi zuen bere irudi goibel dotoretua adore gabe elizako bidea hartzen. Baita haren zerraldoa dotoretua handik egun gutxira kanposantu bidean pasatzen.

Orduan, etsipenez eta tristuraz beterik, betiko lo egitea erabaki zuen eta lobelar trago handi bat hartu ondoren, kobako ardilarrupean murgildu zen.

Osineko uraren fereka freskoak, fereka epelago batzuk ekarri

zizkion gogora eta bere ile horaila harri gainean eserita orrazten ari zelarik, saminak ahaztu eta gau ilargitsuan bizipozez murgiltzea erabaki zuen.

Aurrean zuen ilargi amandrea, irribarretsu, gauari poza eta goxotasuna ematen. Hark ere izaten zituen gorabeherak, ilbeherak, laino lodiak etsai, baina ez zuen etsitzen eta han agertzen zen berriro, bere oinazeak ahaztuta, xarmaz beterik.

Bidasoa gaziturik hiltzen den lekuraino atzera-aurrera bat egingo zuen eguna argitu aurretik, lehenago sarri egin ohi zuen bezala.

Putzuetan murgil egitean, amorrain gutxi eta zenbait itsu edo begi-bakar ikusteak harritu zuen. Sorgin-zubitik pasatzean ezkutatu zen. Zer halako ote zen jakin nahirik burua atera zuenean suzko begidun izaki zapal eta presati batzuk, herensugeak ote?, ikusi zituen errepidean zehar.

Beherago, lehenago gardena zen erreka Bidasoarekin elkartzen den lekuan urpetik igerian ziholarik, ur gorrixka kirastu batek begiak erre zizkion eta larriturik lehorrera irten behar izan zuen amorrain begi-bakarrak gogoan zituela.

Jadanik gau hasierako bizipoz hura apaldua zuen baina ilargi musugorria, laminen eguzkia, eder eta kilikagarri ikusteak aurrera jarraitzeko ausardia eman zion. Izar firfirrikariak, hontzaren ulua, kate-zakurraren zaunkak... une batez dena betiko lekuan zegoela zirudien.

Zenbat gau zituen pasatuak ibai hartan gora eta behera. Maitaleen kontuak, angula harrapatzaileen zalapartak, jaiotza edo heriotza zen etxeetako gorabehera urduririk... gogoko zituen hurbiletik aditzea. Gau hartan ere, ibaiaren alde batean nahiz bestean berbaroa somatzen zuenean, alderatuz, begiak zolitzen zituen baina ez zuen batere ulertzen txipirri-txaparra hura.

Dudarik gabe, denbora luzea zen iragana azkenengo alditik. Halere, bizi bizirik sentitzen zituen bere baitan ema-berotasuna eta mutil lerdanak zorabiatzeko irrikia.

Gaua ez zihokion oso dotore baina zubi gaineko gizakume txapeldun hura ikustean dardara kilikatsu bat hedatu zitzaion gorputz guztira. Txapela ez zuen borobila, Etxebeltzekoak bezala, hiru punta-koa baizik. Ez zitzaion harrigarri egin, gauza jakina bait zen kostaldeko herri hauetan modak oso aldakorrek zirela. Eskuan ageri zuen makilak ere ez zuen lizar makila antzik.

Ileak orraztu, eztarria leundu eta ibai ertzeko sastraka artetik koplak hau hasi zitzaion zuzentzen:

Zubi gaineko mutil lerdena
zurea nindukezu ni naizen dena.

Zubi gainekoak, makila lepoan jarririk, "alto quién va?" oihukatu zuen. "Hau mutil zakarra" pentsatu zuen llederrek kantatzeari utzirik. Uzkur xamar, etendako kantuari ekin zion baina zubi gainekoa, makila bitxi hura ibaira zuzendurik, dinbi eta danba hasi zen. Puntatik sua eta zer ikustezin batzuk zerizkion, urtetan zipristinak ateratzen zituztenak.

Oinaztarri beltz haietako baten zaitada minbera sentitu zuen izter baten eta burua nahasturik, ibaian gora abiatu zen murgilean.

Goroldioak eta huntzak itota, triste ageri ziren Endarlatzako erro-taren paretak zaharrak, are tristeago llederren begi urdinak azkenegoz haren aurretik kobazulorantz pasatu zenean.

Sutan zeukan lobelar salda. Zatitxo bat nahastu zion; duda-muda labur baten ondoan, osoa gero. Trago luzea eginda, ardilarrupean ezkutatu zen, ur gardenez eta mutil lerdenez sekulakotz amets egitera.

100. liburura iritsi da gure «literatura» bilduma.

BABILONIA

Joan Mari Irigoien



euskal literatura-elaberria

ELKAR

Durangoko azokarako prest


Beste 100 betetzen lagunduko diguzulakoan Zorionak guztioi!

“Kanposantu berria derrigorrezkoa da”

Jon Etxaniz, azken urteotan kanposantuko enterradorea

Lurperatzaile lanetan aritzea ez da ohizko gauza. Arrasaten, azken zazpi urteotan Jon Etxaniz arduratzen da lan horretaz, Gonzalo Arregiren laguntzaz. Bi gizon, guretzat ia ezezaguna den lanbidean murgilduta.

Kanposantuaren mantenua, eguneroko arazoak, heriotzaren inguruan sortzen den “morboa”. Oraingo honetan, guk Jon aukeratu dugu bere esperientziak pixka bat zuenganatzeko.



Jon Etxaniz

— *Noiztik Kanposantuko arduradun?*

— 1982ko ekainaren 1ean hasi nintzen lanean, hautaketa prozesua gainditu eta gero. 24 pertsona aurkeztu ginen azterketa teoriko eta praktikoetara, eta azkenean ni aukeratu ninduten.

Hasieran bakarrik. Baina lan gehiegi zen pertsona bakar batentzat, eta horregatik gero Gonzalo Arregi ekarri zuten laguntzeko.

— *Gehienok ez dugu zuon bizimodua ezagutzen. Nolakoak dira hemen egunak? Zeintzuk dira zuen betebeharrak, zuen kezkek?*

— Gure lana, jendea lurperatzea,

doazen gazte talderen bat edo beste eskandalu bizian pasatzen da hemendik... Bulegoetan ere sartu izan zaizkigu lapurtzera... Ez dakit, baina nire ustez errespetu handiagoa beharko lukete izan.

— *Zein jende mota hurbiltzen da hona? Zeintzuk dira beraien ohiturak?*

— Urtean zehar jende asko hurbiltzen da hona, baina beno, gehienbat ere emakumeak izaten dira. Gizonezkoak ez dira hainbeste azaltzen; batez ere tramiteak egiteko. Adibidez zera, badaude hogeitamar bat andra egunero-egunero etortzen direnak. Hor ibiltzen dira, lorak

santuko arduradun bezala kontratatu ninduten. Halere, pertsona bakar batentzat gehiegizko lana zela eta, Gonzalo ekarri zuten laguntzaile. Tira, orduan lasaitxoago ibiltzen ginen.

Dena den, laster aldatu ziren gauzak. Udalak sinatutako akordio batzuen ondorioz, Bedoña, Garagartza eta Santa Agedako psikiatrikoa ere gure ardurapean jarri zituzten.

Noski, lan gehiago, ordu gehiago...

Ez dakit, Udalak zerbait egin beharko luke, agian langile berriren bat hartu. Betebeharrak hiruren artean banatuz gero gauzak behar bezala izango lirake: gure oporrak, prestatutako zerbitzuak...

— *Bukatzeke, Jon, esan al dezakezu kanposantu berriari buruz ezer konkreturik?*

— Beno, bai. Badakigu San Kristobal inguruan kokatuko dutela, gaur egun ermita dagoen tokian. Amerikar erara egingo dute, gorpuak lurrazpiko bobedatan sartu asmoz, eta kanpokaldea zelaia izango da. Bostehun eta piku milioiko aurrekontuaz, hiru fasetan burutuko dute. Egia esan, behar-beharrezkoa dela iruditzen zait, hemen dagoeneko espazio arazoak sortzen ari direlako. Ehun nitxo husten ditugu urtean, baina ehun eta larogeiren bat hildako izaten dira epe berdinean. Horrek erantzuna behar du.

“Andaluzak, extremeñoak, etab. sarritan etortzen diren bitartean, euskaldunak data seinalatuetan baino ez”

noski. Horretaz gain, kanposantuaren mantenua: dena garbi edukitzea, bisitak atenditzea...

Psikologia pixka bat ere bai, hona hurbiltzen den jendearen egoera kontutan hartuta; eta “papeleoa”, hildakoekin tramite asko egin behar izaten da eta.

Kezkak ere ugari, baina batez ere pertsona batzuen jokaerak salatzea, ez bait dira normalak. Batzuetan, hona heldu eta xiringak aurkitzen ditugu, edo txanpain botilak panteoietan... Beste batzuetan, Institutura

jartzen, errezatzen...

Beste gauza kurioso bat. Kanpo-ko jendea euskaldunak baino errezago hurbiltzen da hona. Ez dakit zergatik, andaluzak, extremeñoak... sarritan etortzen dira; euskaldunek ordea, data seinalatuetan agertzeko ohitura erakusten dute: Domu Santu egunean, Gabonetan, Aste Santuan...

— *Zerbait gehiago komentatu nahi zure lanari buruz?*

— Bai. Begira, hasieran lanean hasi nintzenez, Arrasateko kanpo-



Estilo polita dute igerilariek

Arrasate Igeri taldea

Lau urtetik gorako jendea eta 160 pertsona

Arrasate Igeri taldea bi modalitate ezberdinek osatzen dute: Igeriketa klasikoak eta aletekin egindakoak. Horietaz aparte, nesken saskibaloi bi talde eta INEVerako prestatzen ari diren neska-mutilak ere izen honekin ezagutzen dira.

Orain bi urte argi ikusi zuten zerbait egitekotan harrobia landu beharra zegoela. Ordutik, adin ezberdinetako taldeak osatu zituzten. lau urtetik sei rakoak (Marta Cubilloren ardurapean, ordu t'erdiko bi entrenamentu astean), 7-9 artekoak (arduraduna Jon Armendia, bi orduko hiru entrenamendu), 10-13 artekoak (Juan Errastirekin, bi ordu ta laurdeneko hiru saio astean), eta 14tik gorakoak (Carlos Conderen ar-

durapean, bi ordu t'erdiko lau entrenamendu).

Urtero parte hartzen dute Gipuzkoa, Euskadi eta Espainiako txapelketetan, bai udan eta bai neguan. Gainera, herri bakoitzak antolatzen dituen probetara ere aurkezten dira (gogoratu Arrasaten Santo Tomas txapelketa dela garrantzitsuena).

Izenak azpimarratzerakoan Idoia Mendikute (100 m eskafandra eta 100 m libreetan Espainiako errekor- da), Mirari Armendia (50 m. urazpian, Espainiako errekor- da; Diputazioaren beka dauka), Anuska Osinaga (bekaren zain), Begoña Rodríguez, eta Igeriketa klasikoan aritzen den Ane Lasagabaster ere. Beraien atzetik makinatxo bat jende-

■ Mondra bikain

Harrigarria Mondra taldeak Mungiaren aurkako neurketan lortutako emaitza. Egoera larrian aurkitzen zen gure taldea, baina ederki erantzun zuen Bizkaia aldean. 1-4 nagusitu ziren arrasatearrak. Hori da argi eta garbi irabaztea, hori! Arrotxak lortu zituen hiru gol (21, 45 eta 71. minutuetan), eta penaltyz Garrok laugarrena (54. minutuan). Datorren astean Arenas taldea izango dugu bixitari Atxabalpen, eta gogoratu Mondrak ez duela oraindik etxean garaipenik lortu. Gauzak konpondu nahi badituzte hasierako helburuak betetzeko, Mungian erakutsitako jokoaren sarriagotan egin behar.

■ Rugbyan jipoi galanta

Donostiako Bera-bera taldea 46-10 nagusitu zen larunbat arratsaldean Anoetan jokaturako neurketan. Dena den, kontutan hartzen badugu donostiarrek ligako talde sendoena osatzen dutela, txaloe merezi dute Arrasate Kirolakeko jokalariek lortutako bi entsaiuegatik. Biak ere Imanol Aiastuiren jokaldietan heldu ziren. Zein denboraldi ederra mutil honena!

■ Eskubaloian, irabazi

Ederki aritu ziren Arrasate Kirolak eskubaloi taldeko jokalariek Legazpian, La Salleren aurka jokaturako neurketan. Bai defentsan eta bai erasoan, aurreko astean baino sendoago ibili ziren Herreroren mutilak. Partidu bukaeran, 15-20ko emaitza lortu zuten. Moraleja (5), Azkarate (4) eta Imanol (4) izan genituen arrasatearren aldetik goleatzailerik onenak. Ea ondo berotzen diren laster gainera etorriko zaien ligan paper bikaina betetzeko.



omu mosaikoak

Zeramika-Erakusketa: Otalora Ilean

Biltegi berria: Meatz-Erreka

ARRASATE

ARRASATE
PRESS
astero zuekin

podiuma

**Jasone Diaz de Gereñu,
Eskubaloï atezainaren
bakardadea**

Jasonek 22 urte ditu; Eskoriatzako da. Eta seguraski zuetariko askok ez dakizue hamasei aldiz defendatu duela Espainiako selekzioa atezain postuan.

Almenen ekin zion eskubaloian aritzeari, 18 urte zituela. *"Gero Hernaniik deitu zidaten, lehenengo mailako taldera"*.

Kirola mutilen gauza delako kontu zaharra guztiz hautsi du Jasonek urte hauetan. *"Hori lelokeria da; Hernani eta Donostia aldera heldu nintzenez, gehien harritu eta era berean gehien poztu ninduen gauza, kiroldegietan hainbeste neska aurkitzea izan zen. Hori gutxik gutxika bultzatu beharra dago"*.

Poliki-poliki igotzen doa nesken eskubaloïaren maila. *"Baina betiko arazoa daukagu. Oraindik ere dirulaguntza guztiak mutilentzat dira; guretzat apurrak besterik ez"*.

Profesionalismoa, soilik kirolek bizi zezake dituzten aukerak. *"Arlo horretan gaizki gabiltza. Gure taldean behintzat bi yugoslabiarrak dira profesional bakarrak. Beste guztiak amateur moduan gaude"*.

Ondorioz, Euskadin sortzen diren jokalarï onak ihes egiten dute beste taldeetara. *"Bi ekipo daude denen gainetik; beraiek dute dirua, eta noski, jokalarï onenak ere. Beste talde guztiak nahiko parekatuak gabiltza"*.

Espainiako selekzioak uda garaian egiten ditu jokalarïen konzentrazioak, eta azken bi urteotan



bertan izan dugu Jasone. *"Hamasei partidu jokatu ditut, nahiz eta oraindik ordezkoa izan"*.

Eskubaloï atezainak psikologia, izakera berezia behar du izan. Penaltzaren bakardadea, kontraerasoan datorren aurkakoa... *"Bai, entzuna dut jende arraroa garela. Noizean behin balonazoren bat edo beste jasan izan dut, baina normalean ez duzu posibilitate hori kontutan hartzen. Partiduan murgiltzen zara guztiz: Ahalik eta hobetoen bete zure lana, lagunak animatu..."*

Denboraldiak aurrera doazen neurrian, diru gutxi baina entrenamendu ugari, lau astean. *"Orain zaila egiten zait. Arrasaten hasi naiz lanean eta ezin egunero Hernanira joan. Bi han egiten ditut, pistakoak, talde osoarekin; beste bi hemen nire kontura, ariketa fisikoak gehienbat"*.

Bizitzak buelta asko ematen ditu; baina Jasone gaztea da, kategoria duela erakutsia du dagoeneko, eta ze demontre, erronka polita datorkio gainera etorkizun hurbilean.

Bartzelona, Bartzelona.

■ **Saskian, hirugarren porrota**

Gasteiz taldea izan genuen bisitari larunbatean Musakolako kiroldegian. Ederki planteatu zuten partidua Arrasate Kirolakekoek, arabarrak lidergoan zetoze kontutan izanik. Gasteiztarrak errebotean indartsu azaldu ziren lehen zatian, eta abantaila lortu markagailuan. Bigarren zatian, ordea, arrasatearrak gogo handiz aritu ziren eta azken segunduetara 68ko berdinketaz heldu ziren bi taldeak. Galilea jokalarïaren pausu batzuk medio, arbitroek arabarrei eman zieten baloia eta azken segunduan garaipeneko saskiratzea lortu hauek. Partidu bikaina gure jokalarïena, baina jada hirugarren porrota jasan dute aurtengo denboraldian. Sailkapeneko azken postuan daude, nahiz eta behin baino gehiagotan joku ederra eskaini.

■ **Pedruskok 2-Izar Gorriak 2**

Zorte txarra igande arratsaldean San Andresekoek izan zutena. Markagailuan Aitorrek lortutako golari esker aurreratu ondoren, Izar Gorriaren enpatea heldu zen. Berriz ere erasoari ekin eta Lazarok egin zuen bigarren gola. Gauzak horrela geldituko zirela ematen zuenean, hara non enpatatzen duten arabarrek 90. minutuan. Horrenbestez, Pedrusko taldea sailkapeneko 8. postuan dago sei puntuz. Igande honetan Zaramagaren aurka jokatzeraz joan beharko dute. Aupa Pedrus.


Denborapasen soluzioak

Esaera zaharrak zaldiz

"Azaroa hotz, negua motz, azaroa bero, negua gero"

Ezetz asmatu

Bernard Etxeparek



OKENDO

KIROLAK

Iritsi da OKENDO KIROLAKera udazken-neguko moda!


Maalako errabala 13, Tfnoa: 79 92 76 ARRASATE

Foucault-en Pendulua

Seguraski famatua izango dugu Umberto Eco oraintxe bertan argitaratu duen bere bigarren elaberria, *Foucault-en Pendulua* hain zuzen ere. Hau, kritika literarioen txokoa baino, teknikarena denez, pendulu hau zer den eta zertarako asmatu zen azalduko dugu.

Jean Bernard Leon Foucault, sendagile eta fisikari frantsesa, 1850. urtearen inguruan, Ipar eta Hego Poloetatik pasatzen den ardatzaren inguruan Lurrak jiratzan duela froga esperimental baten bila zebilen. Horrela, penduluan fijatu zen eta konturatu ere penduluen oszilazioak plano ezaldakor batean ematen direla, inertzia legearen ondorioz.

Pendulu normal batek, horma erlojuena adibidez, ez du hormaren planoan ez den planan oskiltatzeko



Umberto Eco


aukerarik (erlojuaren mekanismoa-gatik). Baina aukera hau izango balitz hasieran hartutako oszilazioen planoak ez dira paraleloak izango, gure bistara oszilazioen planoan aldatzen ari dela agertuz. Idea hau frogatzeko Foucaultek Pariseko Panteoien 67 metroko pendulua eskegitzea erabaki zuen. Behekoan

ordea, 28 kiloko bola jarri zen. 24 ordu martxan iraun arazi eta gero, oszilazioen planoan 270° gradu aldatu zen, zoruan botatako hondarrean markatuta gelditu zen neurketaz.

Lurrak egun batean bira osoa (360° gradu) jiratzan badu, zergatik Foucault-en Pendulua eman zuen 270° graduko bakarrik?

Ipar eta Hego Poloetan, Lurrak duen jiratzeko ardatzaren pendulua kokatuko banegu, 24 ordutan 360° (bira osoa) neurtuko genuke. Ekua-dorean jarriko bagenu ordea, ez genuke inolako aldaketarik neurtuko (0° gradu). Hau da, neurtu daitekeen jiroa 0° gradutatik 360° gradutara izan daiteke, latitudearen arabera, eta horregatik neurtu zituen Foucaultek 270° gradu bakarrik.

Iñaki Aranburu



FAGOR

iKER


**SUKALDE
LILURAGARRIAK**

ARRASATE

Bainugela-erakusketa: Zarugalde kalea 52, Tfnoa: 79 99 42
Sukalde-erakusketa: Udala Plaza z/g, Tfnoa: 79 00 43


Fred zaharraren garajea (edo iraganaren apologia inuxentea)

Fred zaharrak oso maitea zuen bere garajea. Bertan konpontzen zituen autoek alaitzen zuten amaitzeko zorian zegoen Fred zaharraren bizitza. Louise emaztea aspaldian hila zen, seme-alabak urrutira joanak eta lagun zahar gehienak bidean galduak. Garajera zetozkion autoak ziren, dudarik gabe, Fred-en bizitza tristean alaitasun-iturri bakarra. Hain ziren alaiak, politak, atseginak! Altu eta zabalak, begi handidunak eta irribarretsua, konpontzen errazak eta konpondu ondoren esker onekoak. Beraien nagusiek Fred zaharraren garajera eramaten zituztenean autoen osasunaz arduratzen ziren, haiek guztiz sendatu arte pazientziaz itxaroten zuten. Fred-ek mimo handiz ferekatzen zituen hain ondo ezagutzen zituen motoreak, harik eta beraiengandik soinurik ederrena lortu arte. Eta lortutakoan,



kasik Louise eta umeekin bizi zenean bezain zoriontsu sentitzen zen Fred zaharra.

Baina egun goibel batean, auto berri bat sartu zen Fred-en garajea. Zapala, zorrotza, gris distiratsua, begirada zuhurrekoa. Zalapartaka sartu zen eta presa handiz konpontzeko agindua eman zioten Fredi. Baina motorea ezezaguna zitzaion, arrotza, eta neke haundiz konpondu ahal izan zuen azkenean auto malapartatu hura. Zoritxarrez, handik aurrera, haren antzeko autoak gero



eta ugariagoak izan ziren Fred zaharraren garajea. Guztiak zuhurrak, zalapartatsuak eta presaka konpondu beharrekoak. Fred-en alaitasun-iturri ziren autoak, aldiz, gero eta urriagoak izan ziren garajea.

Eta alaitasun falta eta zalaparta eta presa nagusitu zirenean, Fred zaharrak utzi egin zion garajeko lanari. Denbora luze baino lehen hil zen. Eta Fred hil zenean, garajea bota egin zuten, auto zapal zorrotz eta zalapartasu haiei bide zabala-
goak egiteko.

Mikel Intxausti



Adi AED Elkarteko bazkideok:

**1989ko
OHIZKO BATZAR OROKORRA**

Eguna: **Urriak 31, asteartea**

Ordua: **7etan**

Lekua: **Monterron Kultur Etxea**

Batzarre ostean, 9etan, Musakolako Hostalean AFARI ederra izango da. Eman izena AEDren egoitzan edo 79 54 46 telefonoan lehen bait lehen!

Beraz ASTEARTErarte!

Ugaran jatetxean (II)

Bi errezeta dira Patxi Barrutiak eman zizkigunak: labean erretako hegaluze (bonito) mendrexka eta legatz kokotea.

Arrainen parte bi hauek Euskal Sukaldaritza Berriak modan jarri arte ez ziren gure artean oso estimatuak. Lehen, arraindegietan erregalatu edo bota egiten ziren eta gutxi ziren hauek jaten zituztenak.

Gerora aprezio haundiagoa eman zitzaizen eta arrain piezen prezioan saltzen hasi ziren. Gaur egun, askotan, garestiago ere ordaindu behar izaten ditugu.

Mendrexka labean erreta

Hegaluzearen azpikaldean, burua kenduta, aurretik hasita sabel barreraino doan zatia da. Nahiz eta mehea izan oso koipetsua denez, prestatutakoan hegaluzearen beste zatiak baino askoz ere jugosoago garzen da.

Osagaiak: Mendrexka bat (600-

700 gramokoa)

limoia
berakatza
ozpina
ogi birrindua
gurina
ardo zuria
perreila
gatza.

Hartu mendrexka eta gaineratik gatza, limoi tantaka batzuk eta ozpin tantaka batzuk bota. Ondoren, berakatza xehe-xehe eginda gaineratik zabaldu. Gero ogi birrindu apur bat. Ogi birrindu gainera gurin puntutxo batzuk jar daitezke, sei bat. Aldamenetan ardo zuri apur bat eta gaineratik perreil pixka bat.

Labea aurretik berotuta edukitzea komeni da, 170°tan. Mendrexka bertan sartuko dugu eta 15 minututan edukiko.

Legatzaren kokotea labean erreta

Osagaiak: kiloko kokotea

olioa

gatza

ozpina

berakatza

piperrin gorri txiki bat

Erre behar den azpilean gorutz begira jarri kokotea. Olio apur bat bota eta labean sartu, 20 bat minututan eduki.

Atera eta hezurra erraz askatzen bada eginda dagoen seinale.

Hezurra kendu eta gatza eta ozpina bota, bildurrik gabe. Ozpinak zuritu egiten du okela.

Ondoren zartagina batean oliotan erre piperrina. Berotutakoan piperrina atera eta bertara berakatza txiki txiki eginda bota. Olio eta berakatza arrain gainera zabaldu.

Azpilean geratutako likidoa batu eta zartaganan polikipoliki berotu (kontuz txipristinekin). Pare bat minututan eduki sutan eraginez, ozpin puntua galdu eragiteko. Peska gaineratik bota eta jan.

Morokil taldea

PROMOCIONES MARKULETE, S. A.

NABE INDUSTRIALEN SALMENTA

Mendi-Etxebarrin

445 m² tik aurrera sarbide zabalarekin

*Plantartekoa eta zubi-garaia, aukeran.

*Xafla bikoitz eta isolamenduzko estalkia


*Zerbitzuak: Saneamendua, telefonia, energia elektrikoa eta edateko ura.

Informazioa eta salmenta: Tfnoak: Gasteiz 28 67 60

27 79 60

Arrasate 79 97 95

DENDARABA



MERKATAL ZENTRUA

Paz, Postas eta Independencia kalea Tfnoa: 26 79 83 GASTEIZ



Obenerreka eta Cordoba y Oro Plazan egoiliarren ibilgailuentzako lurrazpiko aparkalekuen Proiektuak idatzi, aparkalekuok eraiki eta ustiatzeko deitutako lehiaketan aurrean, berauei dagozkion oinarriak abuztuaren 3ko 146.zkiko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zirenak, proposamenak aurkezteko epea AZAROAREN HAMALAULEAN bukatuko da.

Arrasate, 1989ko urriaren 23a.

ALKATEA

DEBA GARAIKO UDAL ELKARTEA

Ondorengo lanpostuak bete behar dira:

- * ZABOR BILKETA ZERBITZURAKO ARDURADUNA
- * **GIDARIA**
- * ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA

Instantziak aurkezteko epea: Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita 20 egun.

Oinarriak Deba Garaiko Udal Elkartean daude.

Arrasate Pasealekua 5, ARRASATE. Tfnoa: 79 33 89 / 99.

Arrasaten, 1989ko irailaren 28an
LEHENDAKARIA, Xabier Zubizarreta

DEBA GARAIKO UDAL ELKARTEA

Ondorengo lanpostuak bete behar dira:

- * APAREJADOREA
- * ADMINISTRAZIO OROKORREKO TEKNIKARIA
(EKONOMI EDO ENPRESA ZIENTZIEN LIZENTZIATUA)

Instantziak aurkezteko epea: Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita 20 egun.

Oinarriak Deba Garaiko Udal Elkartean daude.

Arrasate Pasealekua 5, ARRASATE. Tfnoa: 79 33 89 / 99.

Arrasaten, 1989ko irailaren 19an
LEHENDAKARIA, Xabier Zubizarreta

Loditasuna (VII)

Argaltzeko plangintzan ariketa fisikoa dugu lagungaririk onena.

Baina ez du balio edozein modutan egindakoak; erregularra eta iraunkorra izan behar du eta gainera energia asko gastatzen duen ariketa aukeratzea derrigorrezkoa dugu: korrika, bizikleta, igeriketa... Ordu bete korrika egiten denean orduko 10 kilometroko abiaduran 700 kaloria gastatzen dira, hau da, 70 gramu besterik ez. Marathoi-karrera bat egin ondoren 250 gramu gantz besterik ez dugu galduko. Pisu gehiago galtzen da, baina likidoak bakarrik, eta likido horiek berripini beharrean aurkitzen gara. Horregatik, saunetan eta izerdia pasatzen ez duten arropekin ariketa egiten denean pisuaren galera faltsua sortzen da, eta galdu-tako likido horiek ez berripintzea osasunerako kaltegarria gerta daiteke.

Galdutako pisua, gantz pisua,

benetakoa izatea nahi izanez gero, ariketen sesio bakoitzak 30 minututik gorakoa izan beharko du, lehenengo ordu erdian gure soinak glukosa erabiltzen bait du erregai bezala eta 30 minutu horietatik aurrera hasiko da gantzak erretzen. Guzti honengatik ez da ariketa gehiegi baloratu behar gantzak galtzeko, intentsitate haundiz egiten ez bada, behintzat.

Baina ariketa fisikoak gantzak erretzeaz aparte beste zeozertarako

ere balio du: jateko gogoia erregulatu du, gainera neurri metaboliko haundiagoa lortzen laguntzen du eta hau garrantzi haundikoa da, horren bitartez kondizio arruntetan gehiago erretzen bait du.

Are gehiago, efektu bihotz-ba-bestailea ere izan dezake, baina gai honetaz aurrerago hitzegingo dugu. Gaurkoan bukatzeko, orientazio gisa taula bat emango dizuegu kaloriak nola gastatzen diren ikus dezazuen:

Eukeni eta Arantzeta

Etxeko lanak, orduko 3 km ibiltzeak	220	kaloria
Leihoak garbitzeak, orduko 10 km bizikletan	200	kaloria
Ibiltzeak, orduko 5 km oinez ibiltzeak	250	kaloria
Gimnasiak, orduko 13 km bizikletan ibiltzeak,		
orduko 6 km oinez ibiltzeak, ping-pongak, solairuak eskuz garbitzeak.	300-250	kaloria
Igeriketak, orduko 16 km bizikletan, orduko 6,5 km oinez	400	kaloria
Bizikletan orduko 17,5 km, orduko 8,5 km oinez	460	kaloria
Bizikletan orduko 19,5 km,		
korrika orduko 8,5 km eta frontoia	500-600	kaloria
Bizikletan orduko 20 km, korrika orduko 10 km, squash bizkorak	600-670	kaloria
Orduko 11-12 km korriak	700	kaloria

sonora

KEF **Harman/Kardon** PANASONIK CEC MUSIMA

QUAD **ONKYO** Vegas

baile Clener CASIO EGI

Mission Goodmans BASF NAKAMICHI

HONNER Polytone Televes Ortel

Zimmerman Fujitsu LARK Rotel

Cyrus JBL Fox

TEAC TORQUE PIONEER PHILIPS

Hantarex Alpine KELLER Ortofon JUGGS

Tensai MELOS Estrella KONIKA UHER

Fonestar SHINTON

ERESI

Otalora kalea Tfnoa 79 29 09 ARRASATE

ERAÑA

AHOLKULARITZA

OROTARAKO ASEGURUA

Kontzesiño kalea 4, behea

Tfnoa: 79 83 95 ARRASATE

ECUADOR

Kontzesiño 2,

Tfnoa: 79 14 06

ARRASATE

DIETETIKA NUTRIZIORAKO ZENTRU MEDIKOA

TRATAMENDU DIETETIKOA HONAKO HAUTAN:

- OBESITATETA
- ARGALTASUNA
- DIABETEA
- HIPERTENSIOA
- KOLESTEROLA
- AZIDO URIKOA
- HAURDUNALDIA
- HAURRAK
- AGURE-ATSOAK
- KIROLARIAK
- OPERATUA
- LIZERI ETA GILTZURRIN GAISOTASUNAK, etab.

KONTSULTARAKO ORDUA AURREZ ESKATU

ASTELEHENETIK OSTIRALERA, 10ETATIK 12ETARA ETA 16ETATIK 19ETARA DEITU.

BERECIARTU Doktorea **ETXABE** Doktorea

Dietetika eta nutrizioan espezialitatea, Bordeleko Unibertsitatea (Frantzia)

Medikuntza eta kirurgia orokorrean lizenziatuak.

KONTSULTA: Espaloia,4-4.b. BERGARA Tfnoa. 765170

ARRASATE PRESS

astero zuekin

Atxarte inguruan bizikletan

Udazkena, Urriak 22, goizeko 8,30etan Durangon azaldu eta lagun andana handia batu ginen Ezkurdi plazaren inguruan, erreka ondoan. Durango jaietan egonik, txozna franko zegoen, jaiaren goizeko laino freskoa, disfraz asko kaleetan... gautxorien herri bilakatu zen; han zebiltzan Jesukristo, Batman, mairu ugari. Gutxi batzuk, gainera, bizikleta hartzeko ausardia izan zuten. 100dik gora, 130en bat lagun zegoen, bizikleta eta zer ez, koloreen arteko goiz hartan.

9,10ean edo eman zitzaion hasiera. Denak zabal eta nahaspilatuta, argazkigilearen zain, noiz aterako edo. Hasi leku lauean, eta gero gorantz, aldats politikak. Bernak eta enparauak berotzeko aukera bikaina. Ondoren Santikurutzera, Larringan Errotara heltzeko. Hemendik beherantz antzera Atxarteraino. Atxarte-

ko haitz leunak gure alboetan. —eskalatzaile gutxi inguruetan— oraindik nagikeriak astindu gabe...

Gu, ostera, denok abiada bizian, kanterako (harrobi) hauts zuriurdina ezpainetan dastatu eta bidean gorako pista zabala atzean utziz.

Inguruko intxaurren, gaztainondo, pago eta haritz koloretsuen ondok gora gindoazen goiko errekatxora iritsi arteino. Gero, 4.a jarri genuela ematen zuen, primerakoak legez. Txakurzuloraino. Hemen hamarretako bikaina, kas-a, pasteltxo bi, sagarra... Gura adina, ahitutako indarrak berreskuratzeko. Urkiola azpiko txakurzulotik behera pinudia zeharkatu eta Gatzaieta zeharkatu, eta berriro ere Atxartera, suge antzerako bidetik behera, harri abar eta orbel ugari zapalduz. Zer gertatuko ere, burukoa (kaskoa) eta guzti. Beherantz jo eta asfaltutik

Olondora eta hemendik Larringan Errotaraino: igoerak %18ko desnibela zuen. Ondoren piñudi batetik Artabillara eta gero pista txuri batetik Tabira Errotara-Durangora. Antolatzaileen txokora batu ginen, Tabira Mendizale Elkartera.

Amaieran ezusteko itzela, sekulakoa: boteilatxo bat edo zinta bat oparitzen zuten. Eskertzekoa izan zen.

Mendiko zeharbibe honek guztira 23,2 Km izan zuen; Bi ordu t'erdian egiteko modukoa; ez zuen zailtasun berezirik, edozeinek egin dezakeela.

Hurrengo zeharbidea berriro ere Durangaldean. Oraingoan Iurretako Mendi Elkarteak antolatuko du, azaroaren 5ean. Oiz mendiko hegiak ezagutu eta zeharkatzeko aukera ezin hobea.

BBT

Jesus Elkoro etxeko tresnak

Elektroteknika

T. B.


Bideo

Bideo kluba

Magdalena 27, eta Garibai 10,

PHILIPS
BLAUKPUNT
SONY eta SANYO

ARRASATE Tfnoa: 79 18 86



ETXEBIZITZA-MULTZOAK COSTA DORADAN (SALOU, CAMBRILS, MIAMI)

- Itsasotik ondo-ondoan
- Antena parabolikoa
- 1 eta 2 logelako apartamentuak
- Pizina eta kanpoko aparkalekua


Les Gavines

**HIPOTEKAZKO
 MAILEGUA**
 10 URTETARA %13'75 ean



INFORMAZIOA



Anboto

INBERTSIOAK ETA ZERBITZUAK / INVERSIONES Y SERVICIO
 AHOLKULARI INMOBILIARIOAK / ASESORES INMOBILIARIOS

C/ Iturriotz, nº 11 - Tfno. (943) 7920 48 - ARRASATE-MONDRAGON


Manuel Niñerola
 Grup inmobiliari, s.a.

Passeig de La Salle 9
 C. Sant Jordi 17
 E-43850 CAMBRILS
 Tel. 34(9)77 361567
 Fax. 34(9)77 360754

MANGO

lotsagabe jazteko

Postas 5, Tfnoa: 23 04 48 GASTEIZ

BIZKAI JATETXEA

Bizkai jatetxea

Udala auzoa Tfnoa: 79 22 15 ARRASATE



TXIKIAK oinetakoak

Otalora Lizentziatua 21, Tfnoa: 79 44 70

Muruamendiaratz gozo-denda

Erdiko kale 28, Tfnoa: 79 15 34 ARRASATE

Trapo's

Uribe auzoa 2, Tfnoa: 79 83 38 ARRASATE

LOREA


Oinetakoak
eta poltsak

Paz 9, Tfnoa: 25 66 32
GASTEIZ

Osorik pub

Ignazio Zuloaga kalea Arrasate

Arrasate
u
t
o
e
s
k
o
l
a



Klase
praktiko
eta
teorikoak

Olarte 30,
79 89 89



KILI-KOLO

Ferrerias 21
Tfnoa. 797006
ARRASATE

ARRASATE PRESS

79 71 64

ETXEBIZITZAK

- **Bilbon (Deusto).** Pisu merkea konpartitzeko bi neska behar ditugu. Tfnoa: 79.83.63. Marian.
- **Pisua salgai** Arrasate edo Aretxabaletan. Tfnoa: 78 26 97.
- **Neskez osatutako pisu bila ari naiz** Arrasaten. Tfnoa: 79 20 11. Luz. 296. 9etatik letara edo 2etatik Setara.
- **Pisua osatzeko lagun bila** gabilza (gelan bakarrik egongo litzateke). Interesatuak deitu 79 48 11 telefono zenbakira (lan-orduetan) Antoni Kruz edo Karlos Nikolasi.
- **Neskez osatutako pisu bila ari gara** Arrasaten. Tfnoa: 79 52 22, luz.165.. Mertxe. (Deitezekotan, 9etatik 12'30etara edo arratsaldeko 2etatik 5etara bitartean)
- **Pisua salgai Aretxabaletan,** Portasolen. Tfnoak: 79 81 23 edo 79 63 84
- **Pisua errentan hartuko genuke** Arrasate edo Aretxabaletan. Tfnoa: 79 75 42. Goizeko 9etatik 1a bitartean deitu, astelehentik larunbatera
- **Pisua salgai Munar inguruan.** 3 logela, egongela, jangela, sukalde, 2 bainugela, berokuntza zentrala, ganbara eta garajea (azken hau aukeran). Goizeko 7etatik arratsaldeko 8ak bitartean 79 39 39 edo 79 13 77 telefono zenbakietara deitu, asteburuan izan ezik.
- **Donostian konpartitzeko** etxebizitza behar dugu. Dei egin 79 67 76 edo 79 59 11 tfnoetara
- **Telefonikako langileak** etxebizitza errentan hartuko. (3-4 pertsona). Bergaran edo inguruetan. Tfnoak: 52 19 94 (Jose Mari), 39 84 11 (Javi), 46 78 38 (Jose Luis).

- **Umerik gabeko senar-emazteak irakasle gazteak, etxebizitza** behar du lehenbailehen Bergarako hirigunean. Dei egin 62 02 28 Tfnoa.
- **Etxebizitza salgai** Zabalotegi dorrean, Bergaran. Informazio gehiagorako deitu 76 17 37 edo 76 25 89 Tfnoa.
- **Arrasateko erdialdean alokairuan** behar dut lehenengo pisu bat edo beste bat igogailuaz. Tfnoa: 78 07 46.
- **Haurrik gabeko bikote gazteak** Arrasaten pisu alokatua behar du. Tfnoa: 79 30 20.

LANA

- **Pertsona arduratsua** eta euskaraz dakiena behar dugu haurra zaindu eta etxeko lanen bat egiteko. Tfnoa: 79 86 86
- **Euskaraz dakien** emakumea etxeko lanak egin edo haurrak zaintzeko gertu. Tfnoa: 79 07 73
- **Neska arduratsua** haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko gertu. Esperientziaduna, informeak ditut. Tfnoa: 79 93 17.
- **Neska arduratsua** etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko gertu. Esperientziaduna. Tfnoa: 79 45 92. Arratsaldeko 3etatik 4'30ak bitartean edo 8etatik aurrera deitu.
- **Inglesezko klaseak** emateko pertsona behar da, astean 3 edo 4 ordu, goizetan (goizean goiz hobeto) interesatuak deitu 780785 10etatik ordu 1etara, astegunetan.
- **Neska haurrak zaindu** edo etxeko lanak egiteko gertu. Deitu azkar 79 42 69 Tfnoa.
- **Euskaraz dakien pertsona** haurra zaindu eta etxeko lanen bat egiteko behar dugu. Tfnoa: 709 72 75.
- **Euskaraz dakien neska** behar da 4 eta 6 urteko umez arduratzeko eta etxeko lanak egiten laguntzeko.

SALEROSKETAK

- **Hollister bildumako eta Jaguar bildumako liburuak salgai,** erdi prezioan. Ia berriak. Deitu 79.80.91 zenbakira. Otorduetan.
- **Motorra salgai,** Morini 250 cc matrikula SS-W. Tfnoa: 11 77 45. (9etatik aurrera)
- **Bizikleta salgai,** egoera onean. Zeus 2001. 40.000 ptan. Tfnoa: 78 00 35. Javier.
- **Senar-emazte logela salgai** egoera onean. Tfnoak: 79 48 92-79 51 50
- **Kanadiar kanpin denda salgai** (2-3 lagundakoko). Merke. Tfnoa: 79 68 45
- **60 W-ko Roland kitarra** aplikadorea salgai (egoera onean). Tfnoa: 79 95 83. Iosu.
- **Liburu bilduma salgai.** 1952tik 1987ra bitarteko Planeta sariak eta 1969tik 1987ra bitarteko Ateneo sariak. Tfnoa: 79 15 96.
- **"Cremallosa" eta puntuzko jantziak** plantxatzeko den tresna berezia salgai. Egoera onean eta merke. Tfnoak: 12 16 26 eta 12 15 84.
- **Zurezko sehaska bernizatua salgai** berri-berria. Interesatuak 79 47 14 tfnoa. deitu.
- **Kotxearentzako garajea** alokatu edo erosi nahi da San Andresen. Tfnoa: 79 50 53

DENETARIK

- **Etxeko gauzak** (altzariak, telebistak,...) bota behar badituzu, mesedez, bota aurretik deitu guri, tfno honetara 79 84 76 9etatik aurrera.
- **Neska erloju bat aurkitu du** urriaren 13an Portaloian. Jabeak deitu. Tfnoa: 79 23 50

†
ARRASATEN HILDAKOAK

Angeles Cuevas Santamaría
25 urte. Urriaren 21ean.

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA BIDALI GURE BULEGOETARA

TESTUA:.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Arrasate Pasealekua 3 bis, etxebahea.
20.500 ARRASATE Tfnoa: 79 71 64

Famauen ahotik

PATXI GOIKOLEA ; Granjero bokaziñue auken bertsolari maixue



Maixue bere ikasliekin, Apotzan Txapeldun izen zienen

“Granjero”

24 urtekin Mazmelara ezkondu nitzuan eta han oilluek ipini gittuan. Bartzelonara eskatu 100 oillo zuri eta 102 emun juzkuen, bi propiñan. Egon zittuan egunek 100 arrautza eitten zittuenak, bañe argixe automatikue ipinitte eh!

Despertadoriei atzekaldien makkilatxue ipini eta argixen kabliekin juntauko zittuen kobrezko txapatxo bat, despertadorioi bueltaka oiela “klak” joten juan goixen eta juntau eitten jittuan. Bi ordu aurreraketie konsegiru naixuan. Esitue demasa!

“Pelotari”

Pelotan onduen hor 36 urte inguru eitten naixuan eta ointxe be 56kin forman nak. Igez grupoko txapeldun geratu gitzuan, aurrakuen sukanpeoi eta aurreraukuen txapeldun.

Almeneko “Bertso eskolie”

Santi Iparragirre, Juanito Akixu eta hirurok izen gitzuan gehixen sartu gitzenak.

Almeneko neskatilla-mutikuekin hasi gitzuan, bertso zaharrak

ETA SARASUA FINALERA BAI?

Jon Sarasuak, errekurso izugarriek jaukek, bañe oso bertsolari onak jazek eta galtzabete lan izengo jok aurrera pasetako, bañe baitte beste erozeiñek be eh!

Aurten txapela atara gure dauenak arriskau eifi biekojok eta ondo urteten dutzenak haretzek eruegu jok txapela.

ikasi eta halan. Gero han destaketan auienak eskolatik aparte hartzen gittuan, lehenengo Iparragirren baserrixen eta gero Apotzako “Auzo-Etxien”

81ien Eskolarteko txapelketie

Zortzi neskatilla-mutiko eruen gittuan. Txapelketarako bi hillebete falta zienien, neheikue lanekin gabitzan onddio. Ba, bi hillebetien danak bertsotan zelan eitten auiela.

Txapelketa aurretik periodista batek esan juzkuan. “Arrasaten, mutillak, burdiñieta landuko dozue, bañe bertsolaritza lantzeko toki eskasien zauze”

Ba hango txapelak eta sari guztiok honako izen zittuan.

Bertsolari elkarteko ohorezko bazkide

Elkartioi sortu zaniien ohorezko bazkide batzuk izentau jittuen, txapeldunek, Amuriza, Lizaso, Baserri,...Gero lekuona zaharra, Alfontso Irigoien,...ta igez, neu izentau nindduen. Estimetakue dok diploma edarra emun juzkuen eta...

Estepan Plazaola eta J. M. Garai

Zelebrequerixak

Gure lagun rubixa batek oso begi politak dauzka, bera be jakiñian dago, eta egun baten badago tabernan eta mutil bat begira begira. Mutilloi ondora etortzen jako eta mosura begiratuaz esaten dotsa serixi serixo:

— Barkatu, baiña pregunta bat ein biotsut: zuk be(g)ixak zeifienak dauzkazu aittanak ala amanak?

Neskie, pozik, baiña honek adarrik etxostak joko esanaz moduan, kontestau zotzan irribarre batekin:

— Nik amandrianak.

— Eta txalak?

♦ ♦ ♦ ♦ ♦

Aberats berri bat joaten da den-dara eta traje karuenak erakusteko eskatzen dau. Karuena ekartzen dotsa saltzailiak eta esaten dotsa aberatsak:

— Ezta traje txarra, baiña karuagorik eztaukazu?

— Etxoizu puxkat -kontestau zotzan saltzailiak- ugazabai pre-guntakotsat ia karutu leikien.

♦ ♦ ♦ ♦ ♦

Abadiak dotriñan:

— Zeifiek nahi dau zerura joatia?

Luisek eta guztiak:

— nik!, nik!, nik!

— Eta zuk, Luis, eztozu zerura joaterik nahi?

— Ez, amak seiretarako etxera joateko aginddu dost eta...

Juan Martin Elexpuru

“EDERTU” ileapaindegia



San Andres auzoan

79 04 28 Tfnoa.

ARDILLA
artileak

Puntozko jantziak eskuz eta makinaz egiten dira

Kalealdea 13, B. Tfnoa: 79 65 93



Jose Maria Bengoa



Pedro Bengoa

Arasateko bi anairen istorioa

A Bi anai hauek ere. Mondraguetarrak. Gesalibarko sakristauaren etxean jaioak. Zaharrena, Jose Mari, 1890ean; hamar urte beranduago Pedro. Lehenengo fraile egin zitzaigun, pasiotar; eta ordena askotan ohi zuten, ponteko izenaren orde berria ezarri zioten: Juan Pedro de San Antonio, hain zuzen. Baina gure istorio honetan jatorrizko izenez deituko diogu: Jose Mari, alegia. Jose Mari, bada, Ameriketako lurretan hainbat urte igaro ondoren, Ciudad Real-go Daimiel-en zegoen 1936ko gerra zibila lehertu zenean. Benetako Pedro, berriz, Oñatiko fabrika batera joan zen lanera, oñatiar batekin ezkondu eta bi alaba gazteren aita genuen gerratea hasi zenerako.

Garai hartako beste elizgizon asko bezala, Jose Mari miliziano "gorriek" afusilatu zuten; heriotza Carrión de Calatrava-n iritsi zitzaion, Ciudad Real-dik hamar bat kilometrorra. 1936ko Irailaren 24a zen. Egun haietanxe sartu ziren beste aldekoak -militar matxinatuak- Oñati, Arrasate eta alboko herrietan. Hurrengo aste-

tan makina batek "zuriekin" gorriak ikusi behar izan zituen. Frankisten errepresiopean Pedro Bengoa eta beste askok galdu zuten bizia 36ko udazken zital hartan. Sarritan inolako juiziorik gabe edo libre utzi zituztela etxekoei esan ondoren.

Zergatik gogoratzen dudan orain anaien arteko burruka negargarri hura? Ba, gerra amaitu zenean, Jose Mari Bengoa beste fraile batzuekin batera ohore guztiekin "Eroritakoen Haranean" hilobiratu zutelako; eta oraintsu, aurtengo urriaren 1ean, beste 25 pasiotarrekin batera, elizak "dohatsu" egin duelako. Bere anaiak, berriz, frankismo garaian Oiartzungo kanposantutik at lurperatua egon behar izan zuen, inolako gurutze, hilarri edo ezaugarriarik gabe. Eta, Aieteko Txikia ezkutatu zela laister hamalau urte beteko diren arren, gerra hasieran Gipuzkoan afusilatutako hainbat eta hainbat ez dira oraindik inongo hil-agirietan azaltzen: ez zibiletan, ezta elizakoetan ere. Horien artean Pedro Bengoa Aranguren, jakina. Horrexegatik harrotu ditut aintzinako hauts zahar hauek. Izan ere, anai bati zor baldin bazitzaion, besteari ere bai. Ze arraiol!

Jerardo Elortza

J. R. Galarza Arrazola


Kirurgia ortopedikoa eta traumatologikoa

Hasi: Irailaren 5ean

Kontsultak: astearte eta ostegun arratsaldetan

Ordua: aurrez eskatuz

San Vicente Ferrer 4 behea. Esk. 79 27 67 Arrasate



ESTETIKA ETA LURRUN ZENTROA

Miren Arrieta

GIMNASIA PASIBOA EGITEKO MAHAIK

sistemarik modernoena jarri duela funtzionamenduan jakin erazten duizu
Zatoz eta kontsultaiguzu

LEHEN SAIOA DOAN

Konpromesurik gabe
Zerkaosteta 12, Arrasate Tfnoa: 79 00 35.



Alfonso X. Jakintsua, 5
Tfnoa: 79 70 39 ARRASATE

Monte taberna


Maalako errabala 11, Tfnoa: 79 20 56

L E N I Z

AUTO ESKOLA

ARRASATE-Aldai, 9-Tel. 79.46.04

ESKORIATZA-Arana, 13-Tel. 79.36.59



MUSAKOLA OSTATUA

Taberna
Jatetxea
Bazkariak
Bodak
Banketeak
Gelak

Gipuzkoako Etorbidea z/g
Tfnoa: 79 20 50

LORAMENDI



INTERSPORT

KIROLAK

ARRASATE

LORAMENDI KIROLAK.
BEHOBIA-SAN SEBASTIAN
lasterketarako izena emateko
aukeratua.

Zatoz izena ematera, hainbat arinen.
Tfnoa: 79 97 24

Aukera handia: Anorakak, elurretako plumiferoak...

URRATS

AHOLKULARITZA

CARIBAI, 3

Tfnoa: 79 87 74

ARRASATE

Lua

gozokiak

Erdiko kale 8,
Tfnoa: 79 66 75 ARRASATE



Bakarkako lana da bizitza

Bakarrik noizean behin
larrosaren bat opa digu patuak
begira

mira

desira

dasta dezagun,

eta -une batez eserik-
bidera lasai itzul gaitezen.

Bizitza bakarkako lana da,
baina, inoiz edo behin;
binaka jartzen gara
argazkiarendako.

Jon Iriberry

BATZOKIA
jatetxea

Eguneroko menua
eta karta

Iturriotz 41, 79 70 41
Arrasate

LARRINGAN

auto gidarien eskola

KLASE TEORIKOA

IRAKASLEAREKIN

Garibal 3, 79 22 96 ARRASATE

EMAN
BOTOA

EA

■ **Bernardo Atxagaren irratirako istorioak Euskadi Irratian:** Joan den astean astekari honetan aitortu zigunez, orain dela sei bat urte hogeitabost ordu istorio idatzi zituen eta ez zekien non egon zitezkeen.

Jakin izan dugunez, material hori Donostiako Euskadi Irratian dago, Andia kaleko bulegoetan. Bertako iturriek adierazi digutenez, aztertzen ari dira zer egin istorio horiekin, behar bezala grabatzeko kostoak ikaragarri igo bait dira.

Bernardo Atxagarekin ari garenez, Euskadi Irratiko iturri bereberak esan digutenez, oraindik ez dago ezer zehatzik sail honetan iragarritako *Gaueko Abezedarioa* irratsaioaz. Oraingoaz, afalosteko berriketaldi batean esandakoa baino ez omen dago. Hala ere, aurki bilduko dira Euskadi Irratiko arduradunak Euskadi Saria irabazi berri duen idazle asteasuarrarekin egitasmoak zehaztu eta gauzatzerik ba ote dagoen aztertzeko. Agian bai!

■ **Printzak:** Hauxe duzue Loiolako Herri Irratiaren nobedadetariko bat denboraldi berrirako. "*Herri Plazan*" izeneko goizeko saioan (hamaiketatik ordubata bitartean) hamaika t'erdia inguruan bost gonbidaturen eritzi eta iradokizunak entzuteko parada eskaintzen digute. Astero, hiru minutuz edo, hitz egiten digutenak hauek dira: Jose Mari Velez de Mendizabal, Jon Sarasua, Ibaiertz, Inozentzio Olea eta Ramon Etxezarreta. Plantel polita, bada, Loiolakoek aukeratu dutena.

■ **Funtzioa:** Indar handiz eta diru gehiagoz itzuli zaigu Funtzioa. Iragan denboraldian berau izan genuen, nire ustez, ETB 1ek izan zuen programarik arrakastatsuen. Akats eta guzti, molde ugari apurtu zuen gure bikoteak euskal telebistaren joanean. Eta aurrekontu eskasen gainetik airoso asko irten ziren emanaldiak zuzenean ematearen erronkatik.

Aurten antzeztoki bikoitza dakarte, ondorioz erritmo biziagoa jartzen digutelarik, aktuazio desberdinen artean etenik sortu barik.

Joan den asteko saioan lau gauza azpimarratuko nituzke: Arozena Cupido's ezkontagantzian, barregarria, ikusle bat aulkian jarri eta benetan goi mailako emanaldia eskaini zigun artista gaztea, *Txirri, Mirri eta Txirribitonen* itzulera labor eta gozoa eta *Jotakie* taldea. Saio borobila.

Joxe Aranzabal



gusto baduzu

■ **Aitatxo zango luze:** Larunbatean, arratsaldeko 3etan. Jean Negulescoren zuzendaritzapean, Fred Astaire, Leslie Caron eta Terry Moore ikusteko aukera. Jervis Pendleton hain gizon aberatsa da ezin diola xelebre izateari utzi. Frantziatik zehar bidaian dagoela Julie Andre izeneko umezurtz adoragarria ezagutzen du eta alabatza hartu nahi du.

■ **Hauteskunde saio berezia:** Igande gauean, 10etan hasita. Al-derdien lehen baloraketak, Euskal Herriari dagozkion datuak, egunean zehar gertatutako bitxikeriak, etab. Guztiak ere ETB ren eskutik.

■ **Funtzioa:** Ostegun gauean, 9,10etan. Hara non datozkigun berriz Piter eta Xabier, xelebrekeriez blai. Musika ekitaldiak, jolasak, bi famaturi eginiko elkarrizketa, eta jada guztiok ezagutzen duen 'Ula ula gure laguna' famatua ere. Ostegunean ezin baduzue, Ostiralean 4etan programaren errepikalidia.

bideoak



Ander eta Yul

Ana Dfezen azken filmea. Ander, kondena bete ondoren, gurasoen etxera itzultzen da, beste norabait joateko baliapiderik ez delako. Yul bere aspaldiko lagunarekin elkartuko da eta bizimodu zurrunbilotsuari ekingo diote.

OSTADAR IRRATIA (102 F.M)

Ostirala

3,30 eta 8,30 Errota-zahar (Ipuinak)
4 eta 8,30 Batutakin (Musika klasiko)

Azteazkena

4 eta 8 Xiru-liru-li (Haur kantak)

Osteguna

1 eta 8 Irratia-gelan (Gelako grabaketak).



A	NE	A	●	●
BE	●	ZA	GU	RO
HOTZ,	RO.	ZA	●	GU
A	RO,	A	RO	A
GE	A	MOTZ;	NE	●

Esatera zaharrak, zaldiz

Xake edo ajedrezean zaldia bezala mugituz, joan zaitetz saltoka silabak elkartuz esaera osatu arte. Hatzamarrak apuntatzen duen tokian hasi eta markatutako laukitxoan bukatzen da esaldia.

Ezetz asmatu

Nork idatzi zuen lehen liburua euskaraz?

- A) Axular-ek
- B) Bernard Etxepare-k
- D) Iparragirre-k
- E) Mozart-ek

Soluzioa, 21. orr.

Mokordo

Horoskopoa



ARIES
Martxoaren 21etik
Apirilaren 20ra

Baztertu behar dituzu zure burutik betiko zalantza hauek eta helburuak lortzeko gogor jokatu. Negua hasi baino lehen zure bizitzan aldaketa garrantzitsuak gertatuko dira.



TAURUS
Apirilaren 21etik
Maiatzaren 20ra

Egingo duzun bidaia ez pentsa denbora pasa izango denik. Asko ikasiko duzu egun horietan eta ikasitakoa ez duzu denbora luzean ahaztuko.



GEMINI
Maiatzaren 21etik
Ekainaren 20ra

Aspertuta zaude eguneroko ohituraz, aukera haundiak dituzu aldatzeko jokaera hori baina zuk ez baduzu ezer egiten besteek ez dizute lagunduko.



CANCER
Ekainaren 22tik
Uztailaren 22ra

Ez zaitetz nahigabetu dena zenuen bezala irten ez zaizulako, lortu duzuna ez da txiki-keria eta. Oraingo lanetan gainera bigarren aukera duzu, beti gertatzen ez dena.




LEO
Uztailaren 23tik
Abuztuaren 23ra

Oso aste lasaia aurrean duzuna. Asper-tzea ala lasaitasunaz gozatzea zure esku dago. Nahiz eta ohituta ez egon, bigarren aukera komeniko litzaizuke.



VIRGO
Abuztuaren 24etik
Irailaren 23ra

Ez atzeratu dituzun proiektuak. Orain ez badituzu martxan jartzen, agian datorren astean beranduegi izango da; ez pentsa gehiago eta anima zaitetz.



LIBRA
Irailaren 24etik
Urriaren 23ra

Jende berria ezagutuko duzunez zure laguntaldetik urrunduko zara. Ez baduzu bakarti sentitu nahi, gorde betiko lagunak, behar dituzu eta.



SCORPIO
Urriaren 24etik
Azaroaren 22ra

Buruko min hauek aspaldiko arazo batek sorterazen dizkizu. Beraz, ez bilatu medikuntzan soluzioa eta pentsa ezazu zein izan daitekeen irtenbiderik egokiena.



SAGITARIUS
Azaroaren 23tik
Abenduaren 21era

Ez bota lau haizetara zure eritziak, norbaitek probetxo atera dezake eta zure kontra jokatu. Hitzegin baino lehen ondo pentsatu zer esango duzun.




CAPRICORN
Abenduaren 22tik
Urtarrilaren 20ra

Hemendik aurrera nola jokatu behar duzun garbi duzula uste baduzu ere, sorpresa bat baino gehiago izango duzu. Argi ibili eta probetxurik haundiena atera.



AQUARIUS
Urtarrilaren 21etik
Otsailaren 19ra

Dituzun harremanak ez dira beti zure gustokoak baina bai interesgarriak zure lan-eginkizunetarako, beraz beste ikuspuntu batetik begiratu gehiago gozatzeko.




PISCIS
Otsailaren 20tik
Martxoaren 20ra

Giroak bultzatu zaitu zauden egoerara, orain noraezean zaudelarik. Zergatik ez zoaz kanpora egun batzuk gauzak beste ikuspuntu batetik ikusteko? Argiago ikusiko zenuke.

EUSKADI. INDARTU.

EMAN BOTOA



Pedro Mendista Esther Larrañaga Iñaxio Oliveri Jon Arrizabalaga José Julián Irizar
Iñaki Zabala Arantxa Iztueta

**EUSKO
ALKARTASUNA
Ari**

Pedro Guridi	Ramon Bidaburu	Pako Robles	Ion Agirre	Jesus Mª Zabarte	Agustin Bergaretxe	Edurne Iturbe
Felix Lopez	Xabier Urizar	Enrike Letona	Ion Arejolaleiba	L. Mª Azkargorta	J. I. Gaztañaga	Aitor Azkargorta
Xabier Atxa	Joseba Korta	Igor Letona	Kristina Zeziaga	Rafa Etxabe	Iñaki Iturri	X. Uribeetxebarria

**Zure borrokarekin
Euskadik irabaziko du!
HERRI BATASUNA**

**Herriaren
botoa**

